



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# **BERTSOLARITZAREN IRAKASKUNTZAREN**

## **METODOLOGIA**

### **GRADU AMAIERAKO LANA**



EGILEA: Ibarburu Zuriarrain, Iñigo.

ZUZENDARIA: Barandiaran Amarika, Asier.

**2020/2021**

## Laburpena

Lan honetan bertsolaritzaren irakaskuntzako metodologiaren inguruko ikerketa lan bat egin da. 80. hamarkadan bertsolaritzak eskaintzen zituen balore zein ezaugarriak kontuan izanik, Hezkuntza Arautuan barneratzea erabaki zen. Geroztik aurrera, bertsolaritzaren irakaskuntza etapa eta aldaketa desberdinetatik igaro da metodologia eta curriculum propioa sortu den arte.

Bertsolaritza emateko moduaren berri izateko, lau bertso irakasle elkarrizketatu ditut; Amaia Agirre, Unai Muñoa, Maialen Akizu eta Peru Abarrategi. Horretarako, galdetegi bat sortu dut eta haiekin harremanetan ipini naiz galdera horien erantzunak jasotzeko.

Aztertutakoarekin ondorio desberdinak atera daitezke. Hala ere, jaso dudan ondoriorik nagusiena azken bi urte hauetan bertsolaritza emateko metodologian aldaketa ematen ari dela izan da. Beraz, jarraian nire landa lana garatuko da.

**Hitz-gakoak: bertsolaritza, bertsolaritzako curriculum, metodologia, kompetentziak eta helburuak.**

## Resumen

En este trabajo se ha desarrollado una investigación sobre la metodología de la enseñanza del bertsolarismo. En la década de los 80, el bertsolarismo se adentra en la enseñanza formal gracias a los valores y características del mismo. De ahí en adelante, el bertsolarismo ha pasado por diferentes cambios y etapas, hasta que ha creado su propia metodología y su propio curriculum.

Por lo tanto, con la intencionalidad de obtener información sobre la manera de enseñar el bertsolarismo, he entrevistado a cuatro profesores bertsolaris; Amaia Agirre, Unai Muñoa, Maialen Akizu y Peru Abarrategi. Para eso, he creado una encuesta y me he puesto en contacto con ellos y ellas para obtener dicha información.

Con lo investigado he llegado a distintas conclusiones. Aun así, la conclusión más relevante que he obtenido ha sido el cambio de metodología que se está dando en los últimos dos años. Dicho esto, a continuación se elaborará mi trabajo.

**Palabras clave: bertsolarismo, curriculum del bertsolarismo, metodología, competencias y objetivos.**

## **Abstract**

This proposal has been elaborated doing research about *bertsolaritza*'s teaching methodologies. Taking into account the values *bertsolaritza* had during the 80s century, it was decided to introduce it into formal educational contexts. Since then, *bertsolaritza* has undergone several changes and it has created its own methodology and curriculum.

Four interviews were carried out to *bertsolaritza* teachers with the aim of knowing more about the teaching of *bertsolaritza*. Amaia Agirre, Unai Muñoa, Maialen Akizu and Peru Abarrategi are the choosen experts. For that, I developed a survey I shared with them to know their thoughts on the discussed topic.

Analysing this paper, various conclusions can be inferred. Nonetheless, the most important significant conclusion is that, since the last two years, the way *bertsolaritza* is taught in the school has hugely changed. After these statements, further information about my work will be explained.

**Key-words: bertsolaritza, curriculum of bertsolaritza, methodology, competencias, objectives.**

# AURKIBIDEA

<b>1. Sarrera</b>	<b>4</b>
<b>2. Marko teorikoa</b>	<b>5</b>
2.1. Ahozko literatura	5
2.2. Bertsolaritzaren hastapenak eskola giroan	8
2.3. “Bertsolaritza eskolan” programa	9
<b>3. Metodologia</b>	<b>13</b>
3.1. Helburu nagusia eta erabilitako metodologia	13
3.2. Elkarrizketatuen ezaugarriak	14
3.3. Galderen diseinua	15
<b>4. Emaitzak eta analisisa</b>	<b>17</b>
4.1. Lehenengo multzoaren emaitzak	17
4.2. Bigarren multzoaren emaitzak	19
4.3. Hirugarren multzoaren emaitzak	20
4.4. Laugarren multzoaren emaitzak	24
<b>5. Ondorioak</b>	<b>25</b>
<b>6. Mugak eta hobetzeko proposamenak</b>	<b>28</b>
<b>7. Bibliografia</b>	<b>30</b>
<b>8. Eranskinak</b>	<b>32</b>
I. Eranskina: Bertsolariei egindako galderak	32
II. Eranskina: Elkarrizketak	33
a. Amaia Agirreri elkarrizketa	33
b. Maialen Akizuri elkarrizketa	37
c. Unai Muñoari elkarrizketa	40
d. Peru Abarrategiri elkarrizketa	45
III. Eranskina: Genero ikuspegia elkarrizketak	49
a. Amaia Agirreri genero ikuspegiaren elkarrizketa	49
f. Maialen Akizuri genero ikuspegiaren elkarrizketa	51

# 1. Sarrera

Bertsolaritza euskal kulturaren ondare nagusienetako bat da. Ahozko tradizioari loturik agertu zaigu mende luzeetan zehar eta urteak joan ahala ahoz-ahoz transmititua izan den altxortzat daukagu euskaldunok. Hortan erreferente asko ere izan ditugu historian zehar, euskal kulturari eta ondareari asko eskaini eta eman diotenak, hala nola, Jon Lopategi, Txirrita, Bilintx, Lazkao Txiki eta abar.

Bertsolaritza 80. hamarkadatik dago hezkuntzan sartua, hala ere, hezkuntzan urte asko ez dituen arren, presentzia faltarik ez du izan eta gaur egun ere baduela ikusten da. Izan ere, bertsolaritzak eskaintzen eta bermatzen dituen gaitasunak hezkuntzara bideratu nahi izan dira tresna esanguratsu bezain interesgarritzat hartu delako.

Gauzak horrela izanik, nire Gradu Amaierako Lan honen bitartez, gaur egungo bertsolaritza irakasleek berau emateko duten moduez eta metodologiaz ikertu dut. Horretarako, lau bertso irakasleei galdetegi bat egin diet eta jaso ditudan emaitzekin ikerketa garatu dut.

Beraz, datozen lerroetan garatuko den ikerketa honek, jarraian plazaratuko den egitura izango du: lehenengo atalean, marko teorikoa agertuko da. Bertan, lanaren haria jarraitzeko zenbait kontzeptu eta informazio agertzen zaizkigu. Halaber, bertsolaritzako Curriculumaz hitz egiten da eta bertako metodologia ardatz nagusiez. Bigarren atalean, erabili den metodologiaren inguruan hitz egingo da, lanaren nondik-norakoak azalduz. Hirugarren atalean, emaitzetan eta hauen analisisan sakonduko da. Ondoren, laugarren atalean, ikerketaren ondorioak azalduko dira, emaitzak eta teoria uztartuz. Azkenik, bosgarren atalean, nire lanak izan dituen mugak eta hobetzeko proposamenak azalduko dira.

## 2. Marko teorikoa

### 2.1. Ahozko literatura

Euskara, izatez, hizkuntza oso zaharra da. Urte asko igaro ditu ahoz aho deritzogun kultura transmititzen, Kortazarrek 1994an Eliaderi irakurritako esaldi batean ikus dezakegun moduan, ahozko literatura "noizbait norbaiten ahotik irtendako zerbait kolektibitateak gorde duenean" modura definitzen du. Honekin, euskararen ahozkotasuna urteetan zehar, bata besteari transmititutako hori urteen poderioz gaur egun arte heldu dela ulertzen dugu.

Ahozko tradizioa, azken finean, ahoz kontatuak izan diren lekukotza guztiak dira, betiere lehenaldiari dagozkionak. Horrek esan nahi du, ahozko zein kantuzko lekukotzak hartu behar direla kontuan ahozko tradizioa definitzerako garaian (Vansina, 1965). Baina, esaldi honekin ez dator bat Kortazar (1994). Bere ustez, ahozko tradizioak beste alderdi paralelo bat du, herri-literatura deritzona. Ahozko tradizioa, idatzian gordea izaten da sarritan, edota diakronikoki komunitatean ahoz aho igorri delako tradizionalizatzen da. Ez-tradizionala aldiz, "une bateko ekintza batean gertatzen da"(Kortazar, 1994: 216), ez baitago errepikapenik. Bertan sartu beharko genituzke, hala nola, pastoralak eta bertsolaritza bera.

Gai berberarekin jarraituz, Juan Mari Lekuona euskal olerkari, irakasle eta idazle zenak, ahozko literatura "*ahoa loratzen den literatura*" bezala definitzen zuen. Horrekin batera ere, "*idatzirik gabe dagoen literatura*" moduan izendatzen du. Bestalde, idazlea Eliaderekin erabat ados zegoen azken honek plazaratu zuen esaldi batean: "*noizpait inoren ahotik irten dena eta oroitzapen kolektiboak gorde duena*" (Lekuona, 1982: 20).

Literatura idatzari erreferentzia bat egiten badiogu, Euskal Herria eta bere kultura idatzian ere liburuak eta eskuizkribuak gordetzen joan dela eta bere kultura propioa eratzen joan dela ikus dezakegu. Horren adibide nagusia dugu 1545ean idatzitako "Linguae Vasconum Primitiae", aurkitua izan den euskaraz idatzia dagoen lehenengo liburua dena. Hala ere, kontuan hartzekoa da, liburu honetan azaltzen zaigun Euskal Herriko literaturaz gain, ahozkotasunak eta ahozko literaturak garrantzia izugarria duela. Hala dio Juan Mari Lekuonak (1982) ere, ahozko

literatura “*Tradizio altxor*” moduan definitzen baitu. Bere esanetan, ahozko literatura herriak landutako hitzak, hitz-hotsak, esaerak eta esaldiak dira, non gero urteen poderioz eta tradizioaren poderioz, eta noski aho transmisioaren ondorioz gaur egun arte luzatua eta transmititua izan zaiguna. Lekuonak, hala ere, hizkuntza bera baina euskalki ezberdinetan hitz egiten duten hiztunek, aho literatura hori ezberdin transmitituko duela ere baieztatzen zuen (Lekuona, 1982: 23), horren exenplurik nagusia Zuberoako pastoralak izanik.

Xabi Paya bertsolariak *Antología de la Literatura Oral Vasca* liburuan (2013) esandako moduan, euskarak berean bizirauten jarraitzeko gako nagusia honek berak dituen euskalkien oparotasuna da. Bere ustez, euskarak duen aniztasunari eta erabilera biziari esker jarraitzen du aurrera. Payaren ustez, gainera, bertsolaritza da euskal kulturen gehien erabiltzen den, eta ezagunena den ahozko literatura.

Bere liburuan argi azaltzen duen moduan, ahozko euskal literatura genero ezberdinen artean banatzen da, tradiziozkoak edo ez tradiziozkoak. Lehenengoaren kasuan, “*kopla zaharrak, baladak, kantu lirikoak, ipuinak, errefrauek, inauterietako antzezpenak eta Gabonetakoak*” (Paya, 2013: 23-24) agertzen dira. Hauek, autore ezezaguna izaten dutela normalean aipatzen du; bestalde, ez tradiziozkoetan bertsolaritza eta pastoralak azaltzen dira, non Payaren esanetan “*generoak historia edo kronologia jakin bat izaten duen*”.

Honen hitzetan, “*Bertsolaritza diskurtso neurtu, errimatu eta kantatuen artea da*” (Paya, 2013: 27). Bertsolari Getxoztarraren esanetan, bertsolaria denak, bigarren pertsonan dagoen baten gaia jaso edo eta berak bere kabuz asmatutako gai baten inguruan abesten duen “*pieza*” bat da bertsolaritza, betiere modu neurtu, errimatu eta kantatuan.

Xabi Payaren aurretik ere, izan dira bertsolaritzari definizio bat jarri izan dutenak, horietako bat Xabier Amuriza bertsolari, politikari eta idazlearena. Igone Etxebarria eta Jabier Kalzakortaren (2009) “*Herri Literatura*” liburuan ikusi dezakegun moduan, Amurizak bertso batez definitzen zuen bertsolaritza:

*“Hizketan lerratzen da  
gizonen bizitza,*

*jolas edo jokoan  
pozago gabiltza  
Neurriz eta errimaz  
kantatzea hitza,  
horra zer kirol mota  
den bertsolaritza”*

Bertso honek bere barruan duen mezuarekin jarraitzeko, Amurizak (1982) Bertsolaritza eta Bertsogintza kontzeptuak banandu zituen. Bertsolaritza, bat-batean egiten edo momentuan botatzen den bertsoa bezala definitzen zuen. Aldiz, bertsogintza, bere aburuz, aurretik egindako, hau da, inprobisaziorik gabeko bertsoak dira, lehendik pentsatuak daudenak, hain zuzen ere.

Aurreko bereizketarekin desados, Egaña, Garzia eta Sarasuak (2001, 70) bi kontzeptu hauei beraiek uste zuten esanahia idatzi zuten. Amurizak zioenari aurka eginez, hirurek bertsogintza “*bertsolarien jarduna, plazaz plazako zeregin artistikoa eta sorkuntzaren esparrua*” moduan definitzen dute. Bertsogintza, beraien aburuz, erakunde-interesetatik at dago, sortzailearen askatasuna hartzen baita kontuan soil-soilik. Bertsolaria “*ez dago laguntza publikoak lortuko dituen antolakuntzaren mende, eta bere bidea modu natural xamarrean egiten du gizarteko eskariaren arabera*”. Bertsolaritzari dagokionez aldiz, honela definitzen dute (2001, 70):

*“Bertsoaren inguruan sortzen den kultur proiektua izendatzeko erabiltzen da: transmisioa zaintzea, irakaskuntzan egin lezakeen ekarpena aztertzea, ikerkuntzarako bideak jartzea, kulturgintza honen hedapen bideak jorratzea, bertso-eskolak koordinatzea, hedabide politika finkatzea, nazioarteko harremanak jorratzea eta beste hainbat funtzio”*

Honek esan nahi du, Garzia, Egaña eta Sarasuaren (2001) ustez, bertsogintza norberaren artea eta norberak duen bertsorako ekintza hori dela, inongo erakunderen bitartekaritzarik gabe. Ondorioz, bertsolaritza, erakundeek horren inguruan lan egiten duten aspektu zabala da.



Bertsolaritzaren izateaz hitz egin eta gero, bertsolaritza ikastetxeetan noiz eta nola sartu zen zehaztea beharrezkoa deritzot.

## 2.2. Bertsolaritzaren hastapenak eskola giroan

Bertsolaritza, hasiera batean, modu intuitiboz eta pertsona beraren dedukzioz sortua zen, baina hori aldatu egin zen XX. mendean. Mende horretan bertso-eskolak sortu ziren eta, aipatu moduan, lehen norberaren dedukzioz eta modu intuitiboan egiten zena, modu metodologiko batean transmititzen hasi zen. Honela, bertsolaritzaren aldaketa hasi zen (Barandiaran, 2015).

Bertso-eskolen hasiera horrek, laguntza handia izan zuen 80ko hamarkadan Amurizak eta Dorronsorok euren liburuak argitaratu zituztenean, lehenengoak “Zu ere bertsolari” eta bigarrenak “Bertsotan I” eta “Bertsotan II”. Liburu hauekin, metodologia berriak ezagutu ziren bertsolaritza bertso-eskoletan modu errazago batean emateko. Horrela izan ziren lehenengo bertso-eskolak, baserri ingurutik hirigunera jaitsi zirenak, hain zuzen ere. Honela, honako herri hauek izan ziren eskola hoiien aitzindari: Muxika, Hernani, Gasteiz, Zumaia...<sup>1</sup>

Bertsolaritza ere, modu honetan, aldatzen joan zen bere muinean, informatika eta telematika berriak areagotu ziren heinean, bertsolarien idazteko eta bertsotan egiteko modua ere aldatu egin zen. Egaña, Sarasua eta Garziaren (2001) esanetan, egungo eskolak oroimena guztiz baztertu duela eta konfigurazio psikologiko egonkorrik gabeko gizabanakoak sortu dituela aipatzen dute. Berdina pasatzen da, baita ere, hizlarien kasuan. Arrakasta gehien duten kultura produktuetan zentratzen gara gehienetan gailu informatikoak ditugunetik.

Esanda bezala, bertso-eskolak sortu eta areagotzen hasi ziren, eta garai batean eskola orduz kanpo eta dibertimenduagatik egiten zen hori, eskolatzeko prozedura bat ematen hasi zen jarduera horrek zuen aktibotasunagatik. Bertsolaritzaren eskolatzeko prozesu horrek bere barnean zuen muina, gure herriko kultura altxor bat berreskuratzea izan zen garai hartan, 1984-1985. urtean, hain zuzen ere. Bestalde, altxor hori berreskuratzearekin batera, euskararen erabilera

<sup>1</sup> <https://bdb.bertsozale.eus/orriak/get/16-Bertsolaritzari%20buruz--transmisioa#bertsoeskolak>

bizia eta dibertigarria lortzea ere helburu zen, euskararen bizitza suspertzeko eta indartzeko lanetan<sup>2</sup> (Rodriguez, 1997).

### 2.3. “Bertsolaritza eskolan” programa

Arestian aipatu moduan, bertso-eskolak areagotzearekin bat, bertsolaritza ikastetxeetan sartzan hasi zen. Nafarroan abiatu zen 1985. urtean ikastetxeek honela eskatuta. Horretarako “Bertsolaritza eskolan” programa sortu zen<sup>3</sup>. Esan bezala, momentuko eskakizunei kasu eginez, 1985ean ikastetxe nafarretara sartzan joan zen, non aurrera egin ahala, Euskal Herriko zazpi probintzietako ikastetxeetara atxikitzen joan zen. Gaur egun, probintzietako ikasle guztiak kontuan hartuta, ikasturtero 28.000 ikasle inguruk jasotzen dute bertsolaritza Bertsozale Elkarteko 50 irakasleen eskutik.<sup>4</sup>

Esanda bezala, 80ko hamarkada erdialdera, eskoletara sartzan joan zen bertsolaritza, baina garai hartan, bertsolaritza oraindik ez zen bertan finkatu eta ez zen hezkuntza arautuan txertatu. Hasiera batean, ikastaro moduko batzuk ematera joaten ziren bertsolariak eskola horietara, baina 1999. urtetik aurrera, bertsolaritza 6 orduko ikastaro izatetik 30 orduko ikastaroa izatera igaro zen, horrela Nafarroako Hezkuntza Publiko Arautuan txertatu eta finkatu zelarik. Barandiaranek (2015) baieztatu moduan, duela urte batzuk, 2012 eta 2013 urte inguruan hain zuzen ere, Hezkuntzan izan ziren murrizketen ondorioz, 30 orduko ikastaroak izatetik 15 ordukoak izatera igaro ziren. Baina, horrek ere bere alde ona zuela aipatu zuen Barandiaranek: orduak gutxitzearen ondorioz, eskola gehiagotara zabaltzeko aukera egon zela bertsolaritza programa.

Euskal Herriko Bertsozale Elkartek, Mondragon Unibertsitateko adituen - aholkularitzarekin, 2008an “Bertsolaritzaren Curriculuma Lehen Hezkuntzan” lana argitaratu zuen proiektu hura indartzeko asmotan. Lan hau da, hain zuzen ere, Bertsozale Elkartek ikastetxeetan duen oinarri teoriko bakarra. Beraz, urte horretan Bertsozale Elkartek “Gu ere bertsotan” egitasmoa aurkeztu zuen. Bertan, ikasturte

2 <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/19970701/eskolako-bertsogintza-erreformaren-ildotik>

3 <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolaritza-ikastetxean>

4 <https://bertsoikasgela.eus/info/>

osoan zehar bi astetik behin ordubeteko saioak eskainiko zaizkiola bertsolaritzari aipatzen du eta 4., 5. eta 6. mailako ikasleentzat bideratutako proiektua dela.<sup>5</sup>

Curriculum honek, Heziberri 2020aren antzekotasun handiak ditu, izan ere, bertan, landu daitezkeen arlo ezberdinak, ardatz metodologikoak, helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak azaltzen baitira. Honekin batera ere, bertsolaritza lau kompetentzia nagusietan oinarritzen dela aipatzen da, horiek hizkuntza, musika, trebetasun pertsonalak eta trebetasun sozialak barne hartzen dituenak (Aizpurua et. al., 2008).

Ardatz metodologikoari dagokionez, bertsolaritzako curriculumak zehazten duenez, honako hauek dira aurrera eramaten direnak (Aizpurua et. al., 2008):

- 1) Helburu erreal eta komunikatiboak: irakaskuntzaren ikuspegi global eta bateratzailea lehenesten da, beti ere sortzen diren egoerak ikasleen errealitatearekin lotuak agertzen direlarik.
- 2) Sekuentzien irekitasuna: ikas taldearen ezaugarriak kontuan hartzea beharrezkoa izango da, edozein momentutan aldaketak egiteko eta daukagun egoerara moldatzeko asmotan.
- 3) Ikuspegi globalizatzailea: arlo desberdinetako helburuak eta edukiak bateratuz garatuko dira jarduerak.
- 4) Hizkuntza eta kultura: gure kulturaren testuak eta ohiturak landuko dira. Halaber, gainerako kulturak ere kontuan hartuko dira, inklusibitatea bermatuz.
- 5) Erakargarritasuna: ikasleen motibazioa sustatu beharko da beti, ariketa erakargarriak eta biziak sortuz.
- 6) Ikasleen inplikazioa: garatuko diren jarduera desberdinen bidez, ikasleen parte-hartze aktibo eta dinamikoa sustatu beharko da.
- 7) Ikasleen aurrezagutzak eta ingurune hurbil-urruna: eskolako bizitza-egoerak aprobetxatuko dira, ikasleen aurrezagutzak kontuan hartuko dira eta ikasleengandik hurbil dauden baina ikastetxean sortzen ez diren komunikazio egoerak ere landu beharko dira.

<sup>5</sup> <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20120501/gu-ere-bertsotan-eskolan-bertsolaritza-sustatzeko-egitasmoa>

- 8) Input eta output errealak eta anitzak: ikus-entzunezko eta idatzizko testu errealak, bertsolarien bisitak eta bertsolaritza saio errealak ikusteko irteerak egitea gomendagarria da.
- 9) Jarrerazko edukiak: afektibitateari garrantzia emango zaio eta ikasleen gogoeta eta iritzi kritikoaren gaitasuna landuko dira.
- 10) Prozedurazko edukiak: kontzeptuak eta jarrerak eskuratzeko beharrezkoak izango dira.
- 11) Kontzeptuzko edukiak: ikasleek esanahi desberdinak ulertzea eta modu zuzenean erabiltzea lortu beharko da.

Bertsolaritza ikastetxeetara sartzearen helburu nagusia hasiera batean, Euskal Herriko kultura ondare zen bertsolaritza indartzea eta horren inguruko jakintzak eskuratzeko bazen ere, gaur egun bertsolaritzak beste garrantzia ezinbesteko bat du ikasleen heziketan: hizkuntza gaitasunean, eta bereziki ahozkotasunean eragitea (Aizpurua et. al., 2008).

Urteak aurrera egin ahala, Interneteko plataforma bat ere ireki dute: *bertsoikasgela.eus* izena duena. Plataforma horretan, bertsolaritza ikastetxean erabiltzeko eta bertan erabiltzen diren helburuak, material didaktikoak, jolasak, egindako jaialdien bideoak eta beste hainbat eta hainbat material aurki ditzake barrura sartzen denak. Gainera, aipatu moduan, bertsolaritzaren helburu nagusiak era zehatz eta argian azaltzen dira bertan, bi bloke handitan banatzen dituztenak:<sup>6</sup>

- Ikasleei dagozkienak:
  - Bertsolaritzaren oinarrizko ezagutzak lortu eta zaletasuna piztea.
  - Euskararekiko jarrera positiboa izatea eta hizkuntza komunikaziorako kompetentzia garatzea.
  - Jendaurreko emankizun bat gauzatzeko oinarrizko betekizunak ezagutzea.
- Ikastetxe zein herri mailari dagokionez:
  - Bertsolaritza ikastetxean zein herrian sustatzea.
  - Bertsolaritzari ikastetxetik kanpo jarraipen bat ematea.
  - Euskararen erabilera bultzatzea.

6 <https://bertsoikasgela.eus/info/>

Trebetasunei begiratzuz gero, gaitasun pertsonal eta zibikoan, hezkidetzaren inguruko puntu bat dagoela ikusten da. Bertan, hezkidetzari arreta berezia jartzea ezinbestekoa dela aipatzen da, hauek dioten moduan *“femenino eta maskulino arteko ezberdintasunak ezin ditugu alde batera utzi trebetasun pertsonalak eta sozialak lantzerakoan”*. Curriculumean ikusten den moduan, emakumeei eta gizonei rol ezberdinak egokitu zaizkigula baieztatzen du, eremu publikoa gizonentzako zela atzora arte esanez, baita bertsolaritzan ere, oholtzan protagonismoa gizonezkoek baitzuten. Hezkuntzak asko du egiteko horren inguruan, eta bertsolaritzak baita ere, noski. Bertan, gaitasun sozialak eta trebetasun pertsonalak lantzerako garaian, *“ikasle bakoitzarengan eta talde dinamikan zentratutako prozesu bat eskatzen du, ... gizakiarentzat positiboak diren gaitasun guztiak zorrozteko aukera eskainiz neska-mutilei”* Aizpurua et. al., 2008: 59-60).

Aipatzeko modukoa da ere, bertsolaritza ematen duten irakasleek ere bertsolaritzaren inguruan ezagutza sakona dutela, baina, hala eta guztiz ere, irakasle horiek etengabeko formakuntza bat jasotzen dutela.<sup>7</sup>

Ikas-materialei dagokienez, erabiltzen diren ikasmaterialak, gehienetan, fitxak, jolasak, ikus-entzunezko materialak izaten dira, eta horiek kontuan hartuta (edo ez), ikaslearen ebaluazioa aurkezten dute. Bi motatako ebaluazioak azaltzen zaizkigula ikusten da, hala nola, ebaluazio jarraitua eta amaierako ebaluazioa. Lehenengoan, ikasleak edukiak ongi barneratzen dituen eta era progresibo batean helburu horiek betetzen joan den ikusten da. Bigarrenean, aldiz, amaieran ikastetxeei eskaintzen zaien bertso ekitaldietan ikasleen jarrera, aurrera pausuak eta jokabideak hartzen dira kontuan.<sup>8</sup>

Bukatzeko, aipatu beharra dago, azken urte hauetan orain arte bertsolaritza irakasteko erabili izan den metodologian zenbait aldaketa ematen ari direla. Aldaketa nagusia paradigma aldaketari zor zaio, hau da, metodologia tradizional batetik metodo berri eta parte-hartzaileago batera jauzi egiten ari dira. Jauzi horretan Mikel Artola berebiziko lana egiten ari da, izan ere, orain arteko metodologia eta helburu zein konpetentziak bertsolaritzaren curriculumak ezartzen bazituen ere, orain zenbait aldaketa emateko Artolak konpetentzia eta helburu berriak sortzeari ekin dio.

7 <https://bertsoikasgela.eus/info/>

8 <https://bertsoikasgela.eus/info/>

Era berean, ikasmaterialetan ere aldaketak egon badaudela ikusten da. Orain arte testuliburuak eta idazteko materialak asko erabiltzen ziren. Honek, ikasleen parte-hartzea txikiagoa izatea ekartzen zuen, bertsolaritza idatzizko modu batean irakastearekin batera. Horregatik, gertatzen ari den aldaketak ahozko eta bapateko bertsolaritzari eman nahi dio protagonismoa, ikasleen inprobisatzeko gaitasunari zein ahozkotasanari ateak zabalduz (Igartua, 2020).

Beraz, bertsolaritza hezkuntzan emateko metodologiaren inguruan hitz egin eta gero eta jarraian garatuko den ikerkuntza testuinguratu ondoren, hurrengo orrietan honen berri emango da.

### **3. Metodologia**

#### **3.1. Helburu nagusia eta erabilitako metodologia**

Gradu Amaierako lan honen helburu nagusiak bertsolaritzaren irakaskuntzak Lehen Hezkuntzako geletan duen metodologia aztertzea eta bide batez urteetan zehar izan dituen aldaketak jasotzea dira. Horretarako, lana ikertzen hasi aurretik, hipotesi orokor bat sortu nuen. Hipotesi orokor hori, bertsolaritza emateko modua tradizioari lotuta egongo dela da, hau da, idatziz eta testu-liburuekin irakasten jarraituko dela.

Ikerketa hau indartzeko eta hasieran aipatu dudan helburura heltzeko erabili dudan metodologia, elkarrizketena izan da, hau da, inkesta erabili dut. Inkesta 12 galderez osatua izan da eta galdetegia kualitatiboa izan da, galdera ireki eta zabalez egin izan baita. Galdera hauek, funtsean, gaur egun, Lehen Hezkuntzako eskola arautuetan Bertsolaritza nola ematen den eta nola irakasten den galderari erantzuteko sortuak izan dira (*ikus I. eranskina*).

Honekin batera, interesgarria izan zitekeen genero-ikuspegiari buruz ere lau galdera egin dizkiet elkarrizketatutako bi emakumeei. Honekin, bertsolaritzan zein bertsolaritza klaseetan generoak eta genero-ezberdintasunak dituen ahultasunak zein curriculumean falta diren puntu garrantzitsuen inguruan galdetu zaie (*ikus III. eranskina*).

Sortutako inkestan eskola arautuko 4 bertsolari irakasleek parte hartu dute, horietatik hiru Gipuzkoarrak eta bat Arabarra izan dira. Azken batean, Gipuzkoarra naizenez bertan zentratzea erabaki dut, eta aipatu didaten moduan Gipuzkoan aldaketak egiten ari direnez, Arabako bat elkarrizketatu dut ezberdintasunak (baldin baleude) antzeman ahal izateko. Gipuzkoako hiru irakasleak Amaia Agirre, Maialen Akizu eta Unai Muñoa dira eta Arabako irakaslea Peru Abarrategi da.

Era berean, elkarrizketatu ditudan irakasle hauek urte ezberdinetakoak izateak aberastasuna eman dio nire landa lanari; izan ere, haien irakaskuntza esperientzia desberdina izan da, elkarrizketatuko irakasle bakoitzak bertsolaritzako etapa eta momentu desberdinak ezagutu dituelako.

Elkarrizketak modu ezberdinekoak izan dira, kasu bakoitzean ezberdina, alegia. Unai Muñoaren kasuan, bideo-dei bidezko elkarrizketa mamitsu bat izan da, bere esperientzia handia izanik, zati mamitsu zein emankorrak eman dituena; Amaia Agirreren kasuan, zuzeneko elkarrizketa zein idatzizkoa izan da. Lehenengo aldiaren zuzenean galdetu zaio, baina bigarren aldiz galdeketa egiterako orduan dei bidez jaso dira bere erantzunak; Maialen Akizuk idatziz bidali ditu bere erantzunak, baina bigarren aldiz elkarrizketatutakoan, dei bidez erantzun ditu aurrerago aipatuko den bigarren galdeketa hori; Peru Abarrategik, bestalde, dei bidez erantzun ditu galderak.

Azkenik, esan beharra dago, bertsolaritzako klase bat ikusteko aukera ere izan dudala Amaia Agirre bertsolariari esker. Bertsolaritza klase hau Asteasuko Pello Errota ikastetxean izan zen, 5. mailako ikasleekin. Bertan, bertsolaritzako irakaskuntzako metodologia zuzenean ikusteko eta ezagutzeko aukera izan nuen eta honek, nire ikerketan sakontzeko aukera eskaini dit.

## 3.2. Elkarrizketatuen ezaugarriak

Elkarrizketatuak izan diren bertsolariak jada aipatuak izan badira ere, jarraian haien inguruko informazio gehiago emango da gure aztergaiak gehiago ezagutzeko eta ikerketa lanari testuinguraketa konkrituago bat emateko asmoz. Gauzak horrela izanik, datozen paragrafoetan haien berri emango da.

Gure lehendabiziko elkarrizketatua Amaia Agirre Amasa-Villabonatarra da, 1977an jaiotakoa. Euskal Filologian lizentziatu zen eta 1998. urtean Xenpelar saria

irabazi zuen. Bertso eskoletan lan egiteaz gain, urte batzuk daramatza hezkuntza arautuan lan egiten, Asteasuko Pello Errota eskolan adibidez. Bertso alorrean ere nabarmendu da, izan ere, Gipuzkoako 2003ko txapelketan finalista izan zen eta 2005eko Euskal Herriko txapelketan finalurrekoetara iritsi zen, baita 2007ko Gipuzkoako txapelketan ere. Gainera, 2009an ere Euskal Herriko txapelketan finalerdietara iritsi zen.<sup>9</sup>

Bigarren elkarrizketatua Unai Muñoa da. Berrobin jaio zen duela 39 urte, baina txikia zela Lasartera mugitu zen, nahiz eta orain Usurbilen bizi den. Oinarrizko ikasketak egin eta berehala lanean hasi zen. Zenbait lanetan ibili eta gero, Bertsozale elkarteko irakasle izatera heldu zen hezkuntza arautuan. Etxetik datorkio bertsozaletasuna, eta bertsolari moduan Lasarterako bertso eskolan trebatu zen. Bertso alorrean ere txapelketa sariketa ugaritan ibili da.<sup>10</sup>

Hirugarren elkarrizketatua Maialen Akizu, 25 urteko Urretxuarra da. Soziologiako ikasketak burutu ditu eta txiki-txikitatik bertso munduan ibili da, bertso eskola ezberdinetako kide izanik. 2016. urtean Xenpelar saria irabazi zuen. Hezkuntza arautuan esperientzia handiegirik ez duen arren, irakasle lanetan dihardu.<sup>11</sup>

Azken elkarrizketatua Peru Abarrategi Aramaiotarra da, 24 urtekoa. 2008an Aramaioko bertso-eskolan sartu zen. Arabako Eskolarteko Txapelduna izan zen 2013 eta 2014. urteetan. 2019an Arabako Txapelketa Nagusiko finalera sailkatu zen. Bertso eskoletan zein hezkuntza arautuan esperientzia handikoa da, Arabako eskola askotan ibiltzen baita irakasle lanetan.<sup>12</sup>

### 3.3. Galderen diseinua

Arestian aipatu bezala, galdetegiak 12 galdera izan ditu. Galdera hauek modu koherente eta ordenatu batean antolatzeko asmoz, lau multzotan banatu ditut. Beraz, jarraian multzo bakoitza aurkeztuko da.

9 <https://bdb.bertsozale.eus/web/haitzondo/view/43-amaia-agirre>

10 <https://bdb.bertsozale.eus/web/haitzondo/view/1480-unai-muoa>

11 <https://bdb.bertsozale.eus/web/haitzondo/view/2710-maialen-akizu>

12 <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/haitzondo/view/3192-peru-abarrategi>



1. **multzoan**, lehenengo hiru galderak sartu ditut. Izan ere, bertan, irakasle horren bertsolaritzarekiko ikuspuntua zein den, zenbat denbora daraman bertsolaritza ematen eta bertsolaritzarekin zer lortu nahi ote duen ikasleengan galdetzen zaio. Hiru galdera horiek, pertsonalagoak eta orokorragoak direla esango nuke. Galdera hauekin, bertsolari honek bertsoaz duen aldarrikapena eta ikasleekiko bertsorako gogo hori nolakoa ote den harrapatu nahi dut, irakasle honek bertsolari ematen dion garrantzia ezagutzearekin batera.
2. **multzoan**, laugarrenetik zazpigarren galderara artekoak sartuko nituzke. Bertan, bertsolaritzako klase baten osotasunaren inguruan galdetzen da. Modu honetan, bertsolariak irakaskuntza nola ulertzen eta nola erabiltzen duen ezagutu nahi da, horregatik, erabiltzen duen metodologia, ikasmaterialik erabiltzen ote dituen, *bertsoikasgela.eus* plataformak zein laguntza ematen ote dion eta orokorki saio baten hezurdura nolakoa den eta zein modutako eskema jarraitzen ote duen ezagutu nahi da.
3. **multzoan**, Curriculumaren inguruan galdetzen zaio. Oraingoan, klase batean bere horretan ikusten ez den, baina oso garrantzitsua den alderdi horri zein irakasleak berak Curriculumarekin lotura egiteko duen arte horri buruz galdetzen zaio. Multzo honetan, bertsolaritzak ikasleei eskaintzen dizkien kompetentzien inguruan arreta handia jarri zaio. Izan ere, galdetegi honen galdera mamitsuenetako bat honakoa dela iruditzen zait. Galdera gau, gainera, beste lau azpi multzotan banatu dut, honela irakasleak banan banan erantzuteko eta berak horren inguruan duen jakintza zein den azaltzeko. Honekin batera ere, hirugarren multzo honetan erantsiko nuke Amaia Agirreri zein Maialen Akizuri egindako bigarren elkarrizketa. Kasu honetan, Curriculumarekin jarraituz, genero ikuspegiaren inguruan galdetzen zaie, beraien ustez zein aipamen egin beharko litzaiokeen galdetuz. Baita, bertsolaritzan dagoen genero berdintasunaren inguruan ere galdetzen zaie.
4. **multzoan**, azkenengo galdera soilik sartuko nuke. Bertan, covid-19 pandemiaren inguruan galdetzen zaio, pandemia honek beraien

egunerokoan ekarri dituen aldaketak direla medio, klaseak emateko modua ere aldatu delakoan, zein aldaketa eman ote den eta nola aurre egin ote dien egoera honi galdetzen zaie.

Garatu den ikerkuntzan erabili den metodologiaren nondik-norakoak azaldu eta gero, bertan lortutako emaitzen analisisa joko dugu, lortutako emaitzak plazaratuz eta bertatik ateratzen diren ideiez hausnartuz.

## 4. Emaitzak eta analisia

Arestian aipatu ditudan irakasleekin hartu-emanen ibili ondoren, eta bakoitzari dagozkion galderak egin eta gero, irakasle hauek beraien esperientziaz baliatuta galderak erantzun dituzte. Bertsolari bakoitzak, aipatu bezala, esperientzia propio bat, esperientzia ezberdin bat du irakaskuntzan. Batzuk, urte luzez dihardute bertsolaritza hezkuntza arautuan ematen, besteren batek aldiz, oso denbora gutxi. Beraz, bakoitzak bere aletxoak eskainiz eta belaunaldi ezberdineko pertsonak izaki, galdeketa aberatsa eta zabala eskaini dute (*II. eranskina*).

Gauzak horrela izanik eta emaitzen analisia errazteko asmotan, emaitzak aurretik aipatu diren lau multzoen arabera banatu eta aztertuko dira. Multzo horietan norbanakoaren esperientziaz, Curriculumarekiko duen loturaz, klaseak emateko duen moduez eta Covid-19 pandemiaren eraginez saioek izan dituzten aldaketez galdetzen zaie. Beraz, jarraian emaitzak plazaratuko dira:

### 4.1. Lehenengo multzoaren emaitzak

Lehenengo multzoari dagokionez, bertsolaritzaren inguruan galdetzen zaienean lortutako erantzunak nahiko antzekoak izan dira. Elkarrizketatutako lau bertsolarien aburuz, bertsolaritza hitzaren kirol nazionala, komunikatzeko kultur adierazpide desberdin bat, sorkuntzarekin, espresioarekin eta adierazpenarekin lotura duen eskape bide bat eta mundua ikusteko eta irakurtzeko modu berezi bat dela aipatu dute.

Haien lanaren inguruan galdetu zaienean lortu diren emaitzak desberdinak izan dira, bertsolari bakoitzak bere esperientzia propioa izan duelako. Amaia

Agirrereren kasuan, 18 urtetatik dabil bertsolaritzako klaseak ematen, beraz esperientzia handiko irakaslea dela esan daiteke. Bere klaseetan, ahozkotasanari eta inprobisazioari garrantzia handia ematen die, testu liburuak eta idatzizko formak alde batera utziz. Gainera, taldekako lanak ere asko indartzen ditu, hezkuntza indibidualista baztertuz.

Maialen Akizuren kasuan aldiz, bertso eskoletan esperientzia handia izan arren, esan beharra dago hezkuntza arautuan ez duela asko jardun. Bere bertsolaritza klaseetan, konpetentzia komunikatiboa, soziala, emozionala eta musikala lantzen ditu.

Unai Muñoaren kasuan berriz, 21 urterekin hasi zen hezkuntza arautuan bertsolaritza ematen eta bizitza guztia darama horretan, beraz esperientzia handikoa da. Bere esanetan bertsolaritza emateko modua asko aldatu da. Hark dioenez, duela urte batzuk ikasleak Haur Hezkuntzatik zenbait doinu klasiko jakinda etortzen ziren, gaur egungo umeetan aldiz doinu klasikoen ezjakintasuna nabaritzen da. Unaien ustez belaunaldi, metodologia eta gai aldaketei zor zaio honakoa. Halaber, Unai ere Amaiak dioen moduan, aldaketa sakon batean murgildu direla adierazi du. Aldaketa hori testuliburuak eta idatzizko formak alde batera utzi eta bat-bateko bertsogintzara salto egitean datza, honek erronka berriak ekarri dituelarik.

Peruren kasuan, karrera amaitu bezain pronto hasi zen hezkuntza arautuan bertsolaritza ematen, hau da, duela bi urte inguru. Hala ere, oso gaztetatik bertso eskoletan ibilia da. Aldaketaren inguruan aldiz ez du erantzun zehatzik eman, bere esperientzia txikia izan delako.

Bertsolaritzarekin ikasleengan lortu nahi duten horren inguruan galdetu zaienean jaso diren emaitzak enbor berekoak izan dira. Lau bertsolariek aipatu eta goraiatu dutenez, ikasleen sorkuntza gaitasunean eragin nahi izaten dute. Gainera, Amaiaren hitzetan, bat-batean egiteak dakarren engantxe hori eta horrek ematen duen plazera sentiarazi nahi die ikasleei, kantuan eta sorkuntzan goza dezaten. Bere ustez, umeen adierazteko gaitasuna oso eskastuta dago eta horri aurre egiteko *“bertsolaritza sorkuntzaren basamortuan arnagune” (ikus 2.a eranskina)* bat izan daitekeela esaten du.

lido beretik jarraituz, Unaiak euskararen erabilera, bertsolaritzaren transmisioa eta euskal kulturaren ezagutza garatu nahi ditu, hau guztia garapen pertsonalera bideratua izanik. Honetaz gain, emozioen kudeaketari ere sekulako garrantzia ematen dio, bertsoaren bidez alor hau lantzen saiatzen baita.

Peruk dioenez, *“klasez klase eta eskolaz eskola helburuak aldatu egiten dira”* (ikus 2.d eranskina); izan ere, berak lan egiten duen eskolak oso desberdinak dira, batzuetan euskararen erabilera ia ezerezean gelditzen baita. Beraz, bere helburu edo lortu nahi duen gauzarik esanguratsuena bertsolaritzara afizionatzea edo bertsolaritzaren alderdi ludiko hori ikasleek ikustea da.

## 4.2. Bigarren multzoaren emaitzak

Bigarren multzoari dagokionez, erabiltzen duten metodologiaren inguruan galdetu zaienean lortu diren emaitzak antzekoak izan dira:

- a. **Metodologia aktiboa eta parte-hartzailea** erabiltzen dute, beti ere ikasleen jarrera kritikoa eta ekintzailea bilatzen dutelako.
- b. **Ikasleen bat-batekotasuna** ere lantzen dute, eta honek metodologiaren zati garrantzitsu bat hartzen du. Zenbait adibide jartzearren, Amaia, egunerokotasuneko gaiekin lotutako bertsoak lantzen saiatzen da. Unaiak aldiz, bat-batekotasun horretan *“gaizki egiten ikasteari”* ematen dio garrantzia eta ikasleei aukera zabala eskaintzen die klaseak nibel desberdinetako jolas moduko aukerekin garatzen baititu. Jolas horretan erronka desberdinak plazaratzen dizkie ikasleei eta *“ikasle bakoitzak bere maila kontuan edukiz”*, erronka desberdinak aurrera eramaten ditu. Modu honetan, ikasle bakoitzak bere maila ezagutzeko eta aukeratzeko beta izaten du, erritmo eta ikaskuntza-prozesu guztiak kontuan hartuz.
- c. **Ikasmaterialen** inguruan galdetu zaienean, denek erantzun berdina eman dute: *“ikasmateriala egon badago baina ez dugu asko erabiltzen”*. Honen ordez, *bertsoikasgela.eus* plataformak aukera luze eta zabala eskaintzen diela adierazi dute. Bertan, egunero klase desberdin bat emateko adina material omen dago; jolasak, hutsuneak bete, bat-bateko saioak, bertso jarriak, bertso saio transkribatuak, umeentzat espreski sortutako sortak, bertsolari bakoitzaren historia, doinutegia, bertso eskoletako ariketak, jolas

kaxa eta abar. Horregatik, lau bertsolariek plataforma hau erabiltzeko duten ohitura izugarria da.

d. **Klase baten hezurduraren** inguruan solastatzeko eskatu zaie. Galdera honetan lortu diren emaitzak desberdinak izan dira.

- i. Hasteko, bi nesken kasuan, erantzuna nahiko antzekoa izan da. Izan ere, bien klaseen hezurdura oso antzekoa da: Maialenen kasuan, *“hasieran pizgarri moduko bat ematen saiatzen naiz ikasleen arreta erakartzeko eta klaseari hasiera bat emateko” (ikus 2.b eranskina)*. Pizgarri hori, asmakizun bat, jolas bat, kantu bat, ipuin bat edo antzeko zerbait izan daiteke. Ondoren, doinu berri bat edo bertsolaritzari buruzko informazio berri bat ikasten dute, eta klasea bat-batekotasuna eta inprobisazioa lantzen aमितzen dute.
- ii. Mutilen kasuan, aldiz, erantzunak ezberdinak izan dira. Unaien kasuan, bere metodologiarekin oso ziur dagoela ikusi da. *“Klaseak osotasunean inprobisaziora bideratzen ditut gehienbat eta mailen jolasarekin burutzen du saio osoa” (ikus 2.c eranskina)*. Peruk aldiz, klaseak bi zatitan banatzen ditu. Lehenengo zatian, jolas edo dinamika bat egiten saiatzen da. Dinamika horretan askotan inprobisazioak hartzen du nagusitasuna. Gero, bigarren zatian, idatzizko bertsoari heltzen dio maiz eta bertsolari Aramaiotarrak dioen bezala *“honek ez dit asko arduratzen”*, berak lan egiten duen eremuko hizkuntza errealitateak ez diolako bat-batekotasun horretan asko laguntzen.

### 4.3. Hirugarren multzoaren emaitzak

Hirugarren multzoan bertsolaritzaren bidez ikasleek lantzen dituzten kompetentziez galdetu zaienean, lortu diren emaitzak amankomunekoak bezain mamitsuak eta interesgarriak izan dira. Bertsolaritzak eskaintzen dituen onuren artean ahozketasuna eta euskara hizkuntzaren lanketa aipatzen dituzte bereziki, euskal kulturaren transmisioarekin batera. Gainera, guztiek kompetentzia antzekoak lantzen dituztela adierazi dute. Kompetentzia horien artean honako hauek aurki daitezke:

- **Komunikazio gaitasuna** → espresatzeko gaitasuna eta gainerakoekin harremantzeko gaitasuna da. Bertsolaritzak honetan asko laguntzen du, izan ere, etengabeko aho transmisio baten emari da.
- **Euskal kultura** → gure kulturaren ondare den bertsolaritzaren transmisioa eta lanketa ematen dira, bertsolaritza modu aktibo batean eginez.
- **Musika** → bertsolaritzaren bidez derrigorrez doinuak, neurri desberdinak eta kantatzeari dagozkion gaitasunak lantzen dira.
- **Hizkuntza** → bertsolaritzak euskararekin ondo pasatzeko aukera luzatzen die ikasleei. Halaber, hiztegia aberasteko eta zabaltzeko tresna esanguratsua ere bada, modu etengabea hitz desberdinak bilatzen egon behar dutelako.
- **Hizkuntza atxikimendua** → bertsolaritzak euskararekiko atxikimendua modu ludiko batean jasotzeko aukera ematen duela adierazi dute. Horrela, ikasleek euskarak ere erabilera dibertigarria izan dezakeela ikusten dute eta hezkuntzan horren modu automatikoan erakusten dena, jolasaren bidez ikastera hel daitezke. Hala ere, Arabako errealitatea desberdina dela erakutsi du Peruk. Izan ere, bertako hainbat kontestuetan euskarari ematen zaion erabilera nahiko urria denez, haren hitzetan euskararen atxikimenduz solastatzea gauza handiegia da. Peru euskararen beste erabilera bat erakustearekin pozik agertzen zaigu.
- **Trebetasun pertsonal, sozial eta emozionalak** → bertsolaritzaren bidez ikasleek haien sentimenduak kudeatzen eta askatzen ikasten dute. Azken finean bertsolarien aburuz, bertsotan aritzeko ikasleek haien buruarekin konektatu behar dute, gero hori mundura kanporatu ahal izateko. Beraz, honek lanketa emozional polita ekartzen du. Era berean, Peruk bereziki, trebetasun sozialean, jendeaurrekotasuna goraipatu du. Izan ere, bertsotan aritzea jendearekin hartu-emanean aritzea da eta hartu-eman hau modu publiko batean egiten da normalean. Horrela, ikasleak horretara ohitzen dira.

Kompetentzia hauek ebaluatzerako garaian, Unai Muñoak aipatu zidan bezala, ebaluaketa zuzena egiten du berak, hau da, lineala. Ikasleak izan duen hobekuntza edo jarri duen gogoia ebaluatzen du, ez soilik azken emaitza. Izan ere, bertsolaritza esaten duenez *“ez da azken emaitza batekin ebaluatzeko ikasgai bat,*

*besteek ere honela beharko lukete*". Ikasleen jarrerazko ebaluazioan arreta handia jartzen dio, izan ere, *"bertsolaritzarako gogoa"* behar da, eta ez dio askorik inporta bertso ona edo txarra botatzea. Gainera, *"ikasleek beraiek askotan badakite gogotsu ari diren ala hobetu duten"* eta honengatik askotan ikasleek uste duten nota hori da Unaik jartzen duena. Hala ere, aipatzen du, bertsolaritzak boletinean ez duela garrantzia handirik izaten nota jartzerako garaian, nota *"sinboliko"* bat besterik ez dela.

Hirugarren multzoko galderekin jarraituz, bertsolaritzako curriculumaz galdetu zaienean, arreta curriculumak dituen hanka-motzetan ipini dute. Amaia eta Maialenek hanka-motzik nagusiena curriculumak *"generoaren aipamenik ez egiteari"* leporatu diote. Gainera, Maialenek *"bertsolaritzako curriculumaz hezkuntzako curriculumarekin duen lotura zenbaterainokoa den zalantzan"* jartzen du. Unaiek ere badu zer esan curriculumaz. Haren ustez, curriculumak *"oso perfektua eta idilikoa"* da teorian, baina gero hori praktikan jartzea erraza eta errealia ez dela adierazi du. Bertan aurkitzen duen hanka-motzik handiena ebaluazioari dagokio. Hortaz, aurretik aipatua izan den bezala, azken bi urteetan sortzen ari diren metodologia berriko aldaketa nagusietako bat ebaluazioarekin lotuta dago.

Multzo honetan, beste azpimultzo bat sartuko nuke, bigarren galdeketako erantzunak sartzea izango litzatekeena. Bertan, Maialen Akizu eta Amaia Agirrerri egindako bigarren elkarrizketan (*ikus III. eranskina*) genero ikuspegiaren inguruko lau galdera egin zaizkie, beraien ustez bertsolaritza eta generoa zenbateraino bateratuta doazen eta hezkuntzako curriculumean zein puntu izan beharko lukeen galdetzen baitzaie.

Genero berdintasunean edo hezkidetzan nola lagundu dezakeen bertsolaritzak galdetu zaienean, Amaia Agirrek *"betaurreko moreekin"* begiratzen duela mundua aipatzen du, ez bakarrik bertsolaritzan, baizik eta hortik kanpo ere. Betaurreko horiekin begiratzuz gero *"begirada anitza eta irekia izaten asko laguntzen duela"* dio Amaiak. Bestalde, genero iruditegiak oso landuta daudela baieztatzen du Maialenek, baloia denentzako izan daitekeela, arrosa kolorea denona dela eta honen gisako adibideak jarritz. Bestalde *"bertso sorta bakoitzak bere moraleja du edo ikasteko zer bait, ez bakarrik genero ikuspegitik, baita naturarekiko harremanetik, sare sozialekin eduki beharreko kontutik, familia aniztasunetik eta abarretik ere"*.

Honekin batera, elkarre osoa hezkidetzan lantzeko hautuarekin oso gogor ikusten dela aipatzen du.

Gai berberarekin jarraituz, baina beraiek klasean hezkidetzan lantzeko moduaren inguruan galdetuta, bi irakasleek modu antzekoan lantzen dutela aipatu dute. Biak zuzenean lantzen ez dutela aipatu dute, baina bertso sorta askotan modu zehar batean hainbat balore sartzen saiatzen direla baieztatzen dute. Amaiaren kasuan, adibidez, *“umeen jostailuen kolorea, jostailuen rolak, ogibideen genero markak, beraiek entzuten duten musika (rapa tarteko)”* bezalako gaiak ateratzen ditu. Gai hauek guztiak oso mamitsuak direla eta ikasteko asko dutela aipatzen du. Baieztatzen duenez, *“9-10-11 urteko neska mutilek oharkabean zenbat balore matxista barneratzen dituen izugarria da”*. Honekin jarraituz, urtean hiru aldi baliatzen dituela klase feministak emateko gehitu du Amaiak, bat gabonetan, bestea martxoak 8an eta azkenengoa kurtso amaieran.

Bertsolaritzan berdintasunik dagoenik galdetzerakoan, Amaiak argi utzi du *“bertsolaritzan, gizartean bezala, noski ez dagoela berdintasunik”*. Arrakalaren bat zabaldu dela ere aipatzen du Amaiak, *“lehen hegemonikoa zena eta erdigunea zena, orain zorua, hain seguru zuten zorua, mugitu egin zaiela, eta honek bertigoa eta ezinegona sortzen duela”* argi utzi du.

Genero ikuspegiarekin amaitzeko, hezkuntzako curriculumean punturen bat falta ote den galdetu zaie, baita zein aipamen egin beharko ote lioken curriculumak genero berdintasunari ere. Biek galdera zaila dela aipatu dute, baina Maialenek aipatzen duenez, *“curriculumak klase barruan gertatzen den horretara bideratua dago”*, ez daki nola beharko lukeen generoaren puntu horrek, baina eskolan eragina izan beharko lukeela erreibindikatu du. Amasa-Villabonatarrek, aldiz, galdera honi modu irekian erantzun dio, hausnartzeko eta bakoitza bere ondorio propioetara heltzeko hautuarekin. Bere esanetan, emakume bertsolari askok ez dute aurrera egin beren ahots mehe eta fin horren ondorioz, haren hitzak bilduz *“entzulea ez zegoela ohituta ahots horretara eta belarriak ez zeudela prest horrelako ahotsak barneratzeko”*. Horren kontra, Lazkao Txikik ez zuela askoz ahots indartsuagorik azpimarratzen du. Alderdi honekin amaitzeko, hainbat galdera ireki utzi ditu, bakoitzak bere ondorioak atera ditzan. Galdera horiek, honakoak dira: *“Gaur egun ikastetxeetan ikusten duguna zer da? Zeintzuk daude erdigunean? Zeintzuk*



*okupatzen dute jolas-ordua? Asteburutan zeintzuk ari dira jendaurrean? Zeni ematen zaie lizentzia hori? Hortxe erantzuna”.*

Galdera orokorretara bueltatuz eta unitate didaktikoen inguruan galdetzerakoan, lortu diren erantzunak desberdinak izan dira. Amaia eta Unaien kasuan, unitate didaktikoak egiten badituzte ere, haientzako izaten dira, hau da, kurtsoa nondik-nora joango den jakiteko eta haien egunerokotasuneko lana errazteko sortzen dituzte. Maialenen kasuan aldiz, unitate didaktikoak egiten dituela adierazi du, *“bai indibidualak baita kolektiboak ere”*. Azkenik, Peruren kasuan, unitate didaktikorik egiten ez duela esan du. Aitzitik, bi hilabetetik behin Arabako bertso irakasleekin elkartzen dela adierazi du, denbora horretako plangintza bat egiteko.

Multzo honetako azken galderan, bertsolaritza emateko moduz aldatuko zuten horretaz hitz egiteko eskatu zaie. Bertan jaso ditudan erantzunek bat egin dute. Izan ere, adierazi dutenez, existitzen diren bertso programa eta ariketa gehienak idatzizko bertsoa lantzeko pentsatuak izaten dira eta bertsolari hauek, bertso idatziaren partez inprobisazioari eta bat-bateko bertsoari garrantzia eman nahi diote. Beraz, argi utzi dute aldatuko zuten hori bertsolaritzako irakaskuntza inprobisaziotik eta inprobisaziora garraiatzea dela.

#### 4.4. Laugarren multzoaren emaitzak

Laugarren eta azken multzoari dagokionez, Covid 19aren inguruan galdetu zaienean denek adostasuna erakutsi dute. Haien ustez, Covid 19ak kalte egin dio bertso irakaskuntzari. Izan ere, musukoaren eta distantzia sozialaren eraginez, zenbait taldeko dinamika ezin dira aurrera eramanez. Honek, ikasle batzuen maila eta garapena atzean gelditzea ekar dezake eta horren beldurra erakutsi dute. Gainera, Unaiak azpimarratu duenez, *“musukoaren eraginez irakasle-ikasle edota ikasle-ikasle harremanak distantziatu egiten dira, aurpegiko espresioa eten den honetan harremanak hotzagoak bihurtu direlako”*. Beraz, argi erakutsi dute egoera berri honek traba garrantzitsuak ipini dizkiola klaseak emateko moduari eta beraz, bertsolaritza berari ere bai.

## 5. Ondorioak

Galdetegiaren bidez lortutako emaitzak plazaratu eta aztertu ostean, nire ikerkuntzaren bidez lortutako emaitzak teoriarekin jarriko ditut harremanetan, zenbait ondorio ateraz.

Hasteko, bertso irakasleei bertsolaritzaren kontzeptuaren ideiaz galdetu zaienean lortu diren erantzunak, teorian Xabier Amurizak bertso batean esandakoarekin bat datoz. Izan ere, arestian ikusten den moduan, Xabier Amurizak bertsolaritza hitzaren kiroltzat hartzen du eta definizio hau elkarrizketetan ere agertu da (Amuriza, 1982). Amaiak bertsolaritza hitzaren kirol nazionala dela azpimarratu du eta gainerako hiru bertsolariek, errimen eta hitzen jolasa dela esan dute. Beraz, argi ikusten da elkarrizketatuek bertsolaritzaren inguruan duten ideiak teoriarekin bat egiten duela.

Bigarren ondorioa bertsolaritzako curriculumeko helburuei dagokio. Teorian ikusi daitekeen moduan, bertsolaritzako curriculumak zenbait helburu finkatzen ditu. Helburu horien artean bertsolaritzaren oinarritzko ezagutzak eta zaletasuna piztea, euskararekiko jarrera positiboa, euskararen erabilera, ahozkotasuna, eta jendeaurrekotasuna goraiatzeko dira (*bertsoikasgela.eus*). Elkarrizketatuei aurrera eramaten dituzten helburuez galdetu zaienean, bat egiten duten aurretik aipatutako helburuekin. Izan ere, bertsolariek erakutsi dituzten helburu nagusiak sorkuntza garatzea, bat-batekotasuna eta adierazpena lantzea, euskararen erabilera bermatzea, bertsolaritza transmititzea, euskal kultura sustatzea, emozioen kudeaketa lantzea eta jendeaurrekotasuna garatzea izan dira. Beraz, teoriak dioena eta errealitateak bat egiten dute berriro ere.

Hurrengo ondorioa, metodologiaren ingurukoa izango da. Arestian ikusi dugun moduan, bertsolaritzako curriculumak aurrera eramateko zenbait metodologia ardatz finkatzen ditu. Elkarrizketatuei ardatz metodologikoen inguruan galdetu zaienean lortu diren emaitzek bat egin dute bertsolaritzako curriculumak zehazten duenekin. Hala ere, esan beharra dago, bertsolariek ez dituztela bertan agertzen diren ardatz metodologiko guztiak aipatu. Beraz, teoriak eta praktikak bat egin duten metodologia ardatzak hauek izan dira (Aizpurua et al., 2008: 28-30):

- Ikasleen inplikazioa → parte-hartze aktiboa, ekintzailea eta jarrera kritikoa garatzen duena. Gainera, ikasleen lanketa emozional eta afektiboari garrantzia emango zaio.
- Hizkuntza eta kultura → gure kulturako erreferente desberdinak landuko dira, euskal kulturaren transmisioa sustatuz.
- Erakargarritasuna → ikasleen interesak eta motibazioak kontuan hartu behar dira.
- Ahozketasuna → komunikatzeko gaitasuna lantzea beharrezkoa izango da, adierazpena lantzearekin batera.
- Bat-bateketasuna → inprobisazioari garrantzia handia ematen zaio, bertsolaritzaren kutsu magikoa hori delako.

***Hezkidetzaren inguruan beste ondorio bat atera daiteke. Izan ere, elkarrizketatutako bi irakasle emakumeek curriculumean hezkidetzaren inguruan sakontasunik ez dagoela aipatzen dute. Hala eta guztiz ere, hasierako puntuetan argi ikusten den moduan, Aizpuruak eta curriculuma egin zuten guztiek puntu hau jorratzea oso garrantzitsua dela uste dute, beraien esanetan “femenino eta maskulino arteko ezberdintasunak ezin ditugu alde batera utzi trebetasun pertsonalak eta sozialak lantzerakoan”.*** Baina, elkarrizketatutako irakasleak ez daude konforme bertan agertzen denarekin, izan ere, bertsolaritzaren duen balioa hezkidetzaren bezalako gaiak lantzeko, baita gai desberdin zein balore asko ere, oso azalekoa da. Beraz, ondorioztatu daiteke, irakasle hauek hezkidetzaren lantzearen garrantzia gela barruan soilik gelditu ordez, eskola edo komunitate osora zabaltzea ere oso garrantzitsua dela aipatzen dute.

Ikas-materialeri dagokionez, teoriarik ikusi dezakegun moduan bertsolaritzaren emateko material asko dago. Material horien artean, fitxak, jolasak, ikus-entzunezko materiala eta abar aurkitzen ahal ditugu (*bertsoikasgela.eus*). Elkarrizketatutako bertsolariek material hau guztia ezagutzen eta erabiltzen dutela adierazi dute. Hala ere, *bertsoikasgelak* izan du arrakastarik handiena. Plataforma hau teoriarik ere aurkeztua izan da, eta berak hartu duen arrakasta bertan dauden herraminta eta tresna anitzari zor zaio. Bertsolariek adierazi dutenaren arabera, *bertsoikasgelako* materialak egunerokotasun bat eramaten eta denbora guztian ikasleei informazio zein baliabide desberdin eta esanguratsuak emateko aukera luzatzen die.

Ondorioekin jarraituz, bertsolaritzaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan lantzen diren konpetentziek bat egin dute curriculumean agertzen diren konpetentziekin. Izan ere, teorian ikusi dugun bezala, bertsolaritzako curriculumak zehazten dituen konpetentziak, hizkuntza, musika, trebetasun pertsonalak eta soziala barne hartzen dituztenak dira (Aizpurua et. al., 2008). Aipatutako lau multzo hauek barne hartzen dituzten gaitasunak lantzen dituztela adierazi dute bertsolariek. Izan ere, haien egunerokotasuneko bertsolaritzako klaseetan, komunikazio gaitasuna (ahozkotasuna), euskal kultura, hizkuntza eta haren atxikimendua, trebetasun pertsonal eta sozialak (lanketa emozionala) eta jendeaurrekotasuna lantzen dituzte.

Azken ondorio moduan, ikerketa honetako ondoriorik esanguratsuena plazaratuko da. Landa lana hasi aurretik egin nuen informazio bilketa horretan, bertsolaritzaren irakaskuntzan aldaketa bat ematen ari zela ohartu nintzen. Duela oso gutxi arte, bertsolaritza modu tradizional batean irakasten zen, bertsoa idatziz eta paperean egiten erakusten zelako. Gainera, ordurarte zeuden material gehienak ere horretara bideratuak ziren. Gauzak horrela izanik, Mikel Artolaren inizatibaz, metodologia aldaketa baten beharraz jabetu ziren. Aldaketa hori, bertsoa idatziz eta paperean erakustetik, bat-batekotasun batera jauzi egitean oinarritu da. Honekin, bertsolaritzaren eta bertsoa beraren kutsua eta funtsa mantendu nahi dira (Igartua, 2020). Metodologia aldaketa hau elkarrizketatutako bertsolari guztietan antzeman dut. Izan ere, guztiek modu batean edo bestean adierazi dutenez, bertsolaritza maiz idatziz irakatsi izan da eta azken bi urteotan inprobisazioari eta bat-batekotasunari garrantzia handiagoa ematen hasi dira, bertsolaritzaren kutsua mantenduz. Beraz, argi erakutsi dute gaur egungo bertsolaritza irakasleek aldaketarako bide horretan daudela.

Azken ondorio honekin, nire ikerketaren hipotesia deuseztatu dela esan beharra dut. Izan ere, nik uste nuenaren arabera, bertsolaritza emateko modua oraindik tradizioari lotuta egongo zen. Hau da, idatziz eta paperaren bidez irakatsiko zela uste nuen. Baina, bertsolariek argi utzi duten moduan, metodologia aldaketa sakon bat ematen ari da idatzitik inprobisaziora jauzi handia ematen ari delako.

## 6. Mugak eta hobetzeko proposamenak

Lanari bukaera eman eta honakoa burutzeko egin dudan ibilbidea errepasatzen hasita, ezagutza berriak neureganatu ditudala aipatu behar dut. Nire lehenengo ikerkuntza lana izan da eta erronka handia izan den arren, asko ikasi dudala esan dezaket. Beraz, lan honen bitartez nire burua ezagutza berriez aberasteko aukera izan dut.

Gaia aukeratzeko orduan, aipatu beharra dut aukeren artean bertsolaritza zegoela ikusi nuenean asko erakarri ninduela. Txiki txikitatik gustatu zaidan alor bat izan da eta betidanik izan dut bertsotan aritzeko gogoia. Era berean, bertsolaritza urte luzez jarraitu izan dut eta gaur egun aukera dudanetan bertso saio baten bat ikustera joatea gustuko dut.

Nire gaiarekiko atxikimendua aipatu ondoren, hobetzeko proposamenekin hasiko naiz. Hasteko, esan beharra dut, pena handiarekin sentitzen naizela aurten ez dudalako nire Gradu Amaierako Lanean Unitate Didaktikorik aurrera eramateko aukerarik izan. Uste dut horrek asko aberasten ahal zuela lana eta baita nire burua ere. Beraz, praktikan ez egoteak eta lan hau bertan nintzela ez egiteak muga batzuk sortu dizkit, bereziki nire lana aberasteko garaian.

Gainera, Covid-19 pandemiaren eraginez, elkarrizketak ezin izan ditut aurrez-aurre egin. Horrek, informazioaren galera eta elkarrizketak sinpleagoak izatea eragin didala uste dut. Izan ere, haietako batzuek galderak idatziz erantzun dituzte eta hor informazio asko galtzen dela ikusi dut. Azken finean, ahoz-ahoz ematen den elkarrizketek beti dute sakontasun handiagoa.

Halaber, hasiera batean, bost bertsolariri elkarrizketa egitea pentsatua nuen, hiru gipuzkoar, arabar bat eta bizkaitar bat. Azken honekin, arazoak izan ditut. Bertako bertsolaritzako elkartearekin harremanetan ipini nintzen eta bertsolari batek galderak erantzungo zituela esan zidaten, baina errealitatea oso ezberdina izan da. Izan ere, Bizkaiko Bertsozale Elkarteko hezkuntza arautuko bertsolariek ez dituzte nire mezuak erantzun. Beraz, hartu-emana ezinezkoa izan da eta honek nire lanaren osotasuna ahuldu du.

Amaitzeko, lan honekin bizi izan ditudan emozioak eta sentipenak askotarikoak izan dira. Alde batetik, oso pozik nago bertsolaritzaren inguruan ikasi dudanarekin. Bestetik, etorkizuneko irakasle izango naizen partetik baliagarriak izango zaizkidan tresna eta baliabide desberdinak neureganatu ditut. Azkenik, ikerketa lan baten nondik norakoak ezagutzeko eta ikasteko aukera izan dut.

## 7. Bibliografia

- Aizpurua, K. (et al) .(2008). *Bertsolaritzaren Curriculumua. Lehen Hezkuntza*. Lanku.
- Amuriza, X. (1982). *Zu ere bertsolari*. Egin Biblioteka.
- Barandiaran, A. (2015). “ Bertsolaritza Eskolan izeneko programa Nafarroako Lehen Hezkuntzan” in Núñez, X. (et al.) (2015). *Horizontes Científicos y Planificación Académica en la Didáctica de Lenguas y Literaturas* , 245-260.
- Etxebarria, I., & Kalzakorta, J. (2009). *Herri literatura*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia= Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Garzia, J., Egaña, A., & Sarasua, J. (2001). *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak*. San Sebastian: Bertsozale Elkarteak.
- Igartua, A. (2020ko uztailak 4). “Bertsotan egiteko teknika sinplea da; aplikatzea, ez”. *Berria*. Webgune honetatik berreskuratua: <https://www.berria.eus/paperekoa/1864/040/001/2020-07-04/bertsotan-egiteko-teknika-sinplea-da-aplikatzea-ez.htm>
- Kortazar, J. (1994). Aho Tradiziozko literatura eta ahozotasuna. *Euskaltzaindiaren Lan eta Agiriak*, 213–221.
- Lekuona, J. M. (1982). *Ahozko euskal literatura*. Erein argitaletxea.
- Paya, X. (2013). *Ahozko euskal literaturaren antologia*. Donostia: Etxepare Euskal Institutua.
- Rodriguez, F. (1997). Eskolako bertsogintza erreformaren ildotik. *Hik Hasi*, (20), 24-33. Webgune honetatik berreskuratua 2020ko urriaren 30ean: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/19970701/eskolako-bertsogintza-erreformaren-ildotik>
- Vansina, J. (1965). *A Study in Historical Methodology*. Routledge & K. Paul.

## Erabilitako webguneak

- Bertsozale elkarteko datu basea. webgune honetatik berreskuratua 2020ko urriaren 23an: <https://bdb.bertsozale.eus/orriak/get/16-Bertsolaritzari%20buruz--transmisioa#bertsoeskolak>
- Bertsoikasgela.eus datu basea. Webgune honetatik berreskuratua 2021eko urtarrilaren 10ean: <https://bertsoikasgela.eus/info/>
- Bertsozale elkartean datu basea. Webgune honetatik berreskuratua 2020ko uztailaren 29an: <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolaritza-ikastetxean>
- Bertsozale elkarteko datu basea. Webgune honetatik berreskuratua 2021eko urtarrilaren 22an: <https://bdb.bertsozale.eus/web/haitzondo/view/43-amaia-agirre>
- Bertsozale elkarteko datu basea. Webgune honetatik berreskuratua 2021eko urtarrilaren 22an: <https://bdb.bertsozale.eus/web/haitzondo/view/1480-unai-muoa>
- Bertsozale elkarteko datu basea. Webgune honetatik berreskuratua 2021eko urtarrilaren 22an: <https://bdb.bertsozale.eus/web/haitzondo/view/2710-maialen-akizu>
- Bertsozale elkarteko datu basea. Webgune honetatik berreskuratua 2021eko urtarrilaren 22an: <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/haitzondo/view/3192-peru-abarrategi>



## 8. Eranskinak

### I. Eranskina: Bertsolariei egindako galderak

1. Zer da zure ustez bertsolaritza?
2. Zein da zure lana ikastetxeetan? Eta noiz hasi zinen bertsolaritza ematen? Zerbait aldatu al da lehendik?
3. Zer lortu nahi duzu bertsolaritzarekin ikasleengan?
4. Zein metodologia erabiltzen duzu?
5. Ikasmaterialik erabiltzen duzu? Zein?
6. *Bertsoikasgela.eus* erabiltzen al duzu? Zer eskaintzen dizu horrek?
7. Zure bertsolaritza klase baten hezurdura nolakoa den azalduko zenidake?
8. Ikasleek zein konpetentzia lantzen dituztela uste duzu?
  - a. Zein onura eskaintzen du bertsolaritzak ikasleengan?
  - b. Komunikazio gaitasunari dagokionez zein ekarpen eskaintzen diete?
  - c. Euskal kulturarekiko zein ekarpen?
  - d. Hizkuntzarako atxikimenduarekiko zein ekarpen
9. “Gu ere bertsotan” programa edo “Bertsolaritzaren Curriculum” ezagutuko duzulakoan, ba al du arreta jarri beharreko punturik? Eta hanka-motzik?
10. Unitate didaktikorik egiten al duzu?
11. Gaur egun bertsolaritza ematen den modutik zerbait aldatuko al zenuke?
12. Covid-19 pandemiarekin zerbait aldatu al da bertsolaritza eskoletan emateko modua?

### Amaia Agirrerri eta Maialen Akizuri egindako genero ikuspegiaren galderak:

1. Bertsolaritzaren bitartez nola lagundu daiteke genero berdintasunean edo hezkidetzan?
2. Nola lantzen duzu zuk hezkidetzaren bertsolaritza klaseetan?
3. Zure ustez bertsolaritzan berdintasunik badago?
4. Punturen bat aipatu gabe utzi dela uste duzu genero-berdintasunari dagokionez curriculumean? Edo, zein aipamen egin beharko lioke curriculumak?

## II. Eranskina: Elkarrizketak

### a. Amaia Agirrerri elkarrizketa

#### **Zer da zure ustez bertsolaritza?**

Guk bertsolaritza ta ahozketasuna lantzen dugu. Bertsolaritza niretzat hitzaren kirol nazionala ere bada, Xabier Amurizak zioen moduan. Hitzarekin jolas egitea, kantuan gozatzea, errimatzea eta mundua ikusteko eta irakurtzeko modu berezi bat da. Esateko moduen lanketa, arrazoitzeko bide bat, elkarri entzun eta elkarrizketa interesgarriak osatzeko lekua.

#### **Zein da zure lana ikastetxeetan? Eta noiz hasi zinen bertsolaritza ematen? Zerbait aldatu al da lehendik?**

Bertso-eskoletan irakasle moduan 18 urterekin hasi nintzen, eta hezkuntza arautuan ere bai, baina modu informalean, Villabonako eskola publikoko guraso elkartearen eskutik. Bertsozale elkartearen, hezkuntza arautuan, duela 11 urte hasi nintzen.

Gure lana ikasleekin ahozketasuna lantzea da, bertsoaren tripak erakustea gutxi-asko, eta bertsoak egiten eta osatzen jakiteaz gain jende aurrekotasuna pittin bat lantzea, errespetu eta elkarri entzutearen baloreak lantzea, eta bat-batean egitearen adrenalina eta sentimendu berezi hori probaraztea.

Azken bi urteotan asko aldatu da gure irakasteko modua. Lehen liburuari lotuta aritzen ginen, eta sorkuntza silaba eta paperari lotuta.

Gaur egun paperak ez du lekurik nire ikasgelan, eta umeei bertsolaritzarekin zerikusia duten bertso eta informazioa ahoz ematen zaie, edo pantalla bidez, baina sorkuntzan ez dago idatzizko formaturik. Egia da umeei bat-batean ez dutela guk bezala egiten, ez direlako gai, hau da, ikasleek paperik gabe bat-batean ariko balira bezala egiten dute, eta eurentzat bat-batean ari dira, baina buruz ikasitako puntua kantatzen dute hasieran behintzat. Hala ere jende aurrean, alanbre gainean joatea zer den probatzen dute.

Gaur egungo hezkuntzak apenas ematen duen horretarako aukera. Oso lan individualista da. Hemen derrigor taldeak funtzionatu egin behar du. Elkarrekin kantatzen dituzte sortak. Galderak denei egiten zaizkie. Jolasak ere denentzat dira,

eta sorkuntzaren garaia heltzen denean derrigor entzun behar diote elkarri.

### **Zer lortu nahi duzu bertsolaritzarekin ikasleengan?**

Guk sentitzen dugun hori sentitzea nahi dugu. Bat-batean egiteak dakarren engantxe ta flipe hori. Amildegira salto egiteak dakarren gozamina. Hitzarekin jolas egiteak eta txukun formulatzen asmatzen dugunean ematen duen plazerra sentiaraztea. Gurea den kultur adierazpide batean trebatzeko baliabideak eman nahi dizkiot. Kantuan goza dezaten eta sortzen goza dezaten. Gaur egun oso mugatuta daude umeen adierazteko gaitasunak, oso eskastuta, kamustuta, eta geroz eta maila apalagoa dakarkite, baita kultur jakintza ere. Lehen bi edo hiru doinu jakinda zetozen, gaur egun ez. Gaur egun etxean ere ez da hitz egiten. Pantallek jan dizkigute elkarrizketak, eta esan nahi duten hori esateko gai ez dira umeak. Oso tristea da baina hala da. Eta bertsolaritza arnasmune bat da sorkuntzaren basamortuan.

### **Zein metodologia erabiltzen duzu?**

Lehen sekuentziaka funtzionatzen genuen, baina orain ez. Nik ez behintzat. Nik gaika funtzionatzen dut, eta metodologia beti antzekoa da, ikas prozesua behintzat bai.

*Bertsoikasgela* web orrian nahi adina material daukazu. Ni astero gai baten inguruan aritzen naiz. Janaria bada gai zentrala, ba janariari buruzko bertso sorta bat entzungo eta kantatuko dugu lehenik denok elkarrekin. Gero bat-bateko saio bat edo bertso zahar edo jarri batzuk, edo horri buruzko sorta ezagunen bat jarri duen bertsolariren baten inguruan hitz egingo diet, kultura general moduan. Gero jolasen bat edo ariketaren bat eta azkenik euren sortzeko garaia letorke. Egia da guk ere dena pantailatik egiten dugula.

### ***Bertsoikasgela.eus* erabiltzen al duzu? Zer eskaintzen dizu horrek?**

Bai. Hor denetik dago. Egunero klasea emateko adina material dago, eta astero berritu egiten da gainera. Hor jolasak, hutsuneak bete, bapateko saioak, bertso jarriak, bertso saio traskibatuak, umeentzat espreski sortutako sortak, bertsolari bakoitzaren historia, doinutegia, bertso eskoletako ariketak, jolas kaxa.... Bururatu dakizukene guztia dago hor.

Nahi duzun gaiari buruz bilaketa erreza egiteko aukera duzu, oso ondo antolatuta dago.

### **Zure bertsolaritza klase baten hezurdura nolakoa den azalduko zenidake?**

Sartu eta berehala ikasleei aliziente moduko bat ematen saiatzen naiz, haien arreta erakartzeko. Aliziente horietako bat, asteburuan zer egin ote duten galdetzea izan daiteke. Ondoren, momentuan sortzen den gai baten inguruan puntuak botatzen dizkiet beraiek puntu-erantzunak binaka sor ditzaten. Ikasleen arreta bereganatu eta gero, bertsoikasgela.eus plataforman sartzen naiz bertan dauden ariketatxoak egiteko. Ariketa horiekin denbora bat pasa ondoren, plataforman bertan dauden gai interesgarri batzuei buruz, ikasleak bapateko bertsoa botatzera gonbidatzen ditut.

### **Ikasleek zein konpetentzia lantzen dituztela uste duzu?**

- a. Zein onura eskaintzen du bertsolaritzak ikasleengan**
- b. Komunikazio gaitasunari dagokionez zein ekarpen eskaintzen diete?**
- c. Euskal kulturarekiko zein ekarpen?**
- d. Hizkuntzarako atxikimenduarekiko zein ekarpen?**

Bertsolaritzak ikasleengan onura asko ekartzen ditu, bereziki ahozkotasunean eta hizkuntza garapenean. Ahozkotasunari dagokionez, espresatzeko gaitasuna eta komunikatorako gaitasuna asko lantzen dira. Gainera, hiztegia aberasteko ere asko laguntzen du.

Euskal kulturari dagokionez, nik uste erantzuna argia dela. Bertsolaritza euskaraz egiten den heinean euskal kultura lantzen dela argia da. Gainera, erritmoak, abestiak, kantu zaharrak, bertso zaharrak, euskal pertsonaia erreferenteak (Lazkao Txiki, Pello Errota, Bilintx, Txirrita...) ere ikasten dituzte, eta aipatu beharra dut hori oso garrantzitsua dela.

Azken puntuari helduz, hizkuntzarekiko atxikimendua nik klaseak ematen ditudan eskoletan nahiko garatua dute. Izan ere, eskola hauek oso eremu euskaldunekoak dira eta horien egunerokotasunean euskaraz hitz egiten dute.

**“Gu ere bertsoan” programa edo “Bertsolaritzaren Curriculuma” ezagutuko duzulakoan, ba al du arreta jarri beharreko punturik? Eta hanka-motzik?**

Niri bereziki asko gustatzen zait lehenengoa. Izan ere, klaseak dibertigarriagoak eta arinagoak egiten laguntzen dit. Egunerokotasunean asko erabiltzen dut ikasleekin bapateko bertsoak egiten laguntzen didalako. Aipatu beharra dut, baita ere, orain Mikel Artolarekin metodologia aldaketa bat egiten ari garela azken bi urte hauetan. Bertan, genero ikuspegia kontuan hartu dugu, eta hau da, agian, gure bertso programari falta zaion puntuetako bat.

**Unitate didaktikorik egiten al duzu?**

Niretzako bai baina ez oso elaboratua. Nik ulertzeko eta klasea aurrera eraman ahal izateko egiten ditut.

**Gaur egun bertsolaritza ematen den modutik zerbait aldatuko al zenuke?**

Idatzi dudan moduan, aldaketa bat egiten ari gara azken bi urte hauetan. Artola lan handia egiten ari da arlo horretan. Gure metodologia orain arte nahiko tradizionala izan da, izan ere, jadanik existitzen diren bertso programa eta ariketa gehienak idatzizko bertsoa lantzeko pentsatuak dira. Hortaz, hau aldatzeko lanetan gabiltza. Gure asmoa, inprobisazioari eta bapateko bertsoari merezi duen lekua ematea da eta horretan gabiltza.

**Covid-19 pandemiarekin zerbait aldatu al da bertsolaritza eskoletan emateko modua?**

Bai, eta ni asko ari naiz sufritzen. Ezin ditugu taldeka jarri zenbait eskoletan... Eta horrek asko zailtzen du. Ezin ditugu ukitu, ezin gara eurengana joan... Nik Asteasun eten egin nuen zu etorri zinenean, baina Asteasun bezala beste leku batean soilik egin dezaket, eta oso mugatuta sentitzen naiz.

Banaka aritzen dira bertsoan, baina ez denak. Binaka elkarren babesean errezago aritzen dira asko.

Orain askok euren lekutik ta bakarka kantatu behar dute, eta horrek asko zailtzen ditu lorpenak eta motibazioak.

Maskarilarekin aritzeak ere zaildu egiten du, bai kantatzeko gozamina ta

askatasuna eta baita ulermena ere.

Lehen borobil batean jartzen nituen askotan, elkarri adi eta elkarri txanda errespetatuz eta elkarri entzunez egon behar zuten, eta hor balore kooperatibo asko lantzen ziren oharkabea, talde izaera lortuz.

## b. Maialen Akizuri elkarrizketa

### **Zer da zure ustez bertsolaritza?**

Eraldaketa helburu duen kultur adierazpide bat

### **Zein da zure lana ikastetxeetan? Eta noiz hasi zinen bertsolaritza ematen? Zerbait aldatu al da lehendik?**

Nire lana ikastetxeetan bertsolaritzaren ezagutza zabaltzea da eta bertsolaritzak eskaintzen dituen konpetentzia komunikatibo, sozial, emozional eta musikalak, besteak beste, ikasleei eskuratzen laguntzea.

Bertsolaritza, bertso-eskoletan ematen hasi nintzela badira 7 bat urte dagoneko. Hezkuntza ez-formalean herri desberdinetan ibili naiz (Urretxu, Zaldibia, Bilbo, Orereta) bai eta forma desberdinetan ere.

Aldatu dena da, bertsolaritza hezkuntzan ematean kokatzen zarela talde eta egitura baten barruan, eta bestelako estrategia eta metodologia bat jarri behar duzu praktikan.

### **Zer lortu nahi duzu bertsolaritzarekin ikasleengan?**

Helburua, amesti, eraldaketa da. Eraldaketa izan daiteke ikasle horiek hizkuntzarekiko duten harremanean, edo sortzeko pasioan, edo euren harremanetan. Helburu dugu ikasle eta talde sortzailea, eta horrek gerora zein forma izango duen ez dugu jakiten.

### **Zein metodologia erabiltzen duzu?**

Bertsolaritzak hezkuntza arautuan badaramatza jada 20 urte eta metodologia aldatzen eta doitzen joan da. Egun, material asko eta berria sortzeaz gain,

metodologikoki saltoa emanda da bat-batekotasunari garrantzia emanaz. Ohartzen baikinen, bertsolaritzaren transmisioa asko egiten ari ginela azalpenetik eta idatzitik, eta bertsolaritzaren bereizgarritasun handi bat badela bat-batekotasuna, eta horrek zuku atera ziezaiokeela ikasleen gaitasun-komunikatiboari.

### **Ikasmaterialik erabiltzen duzu? Zein?**

Bai. *Bertsoikasgela.eus* web orria irakasleontzat, ikastetxeentzat zein ikasle ororentzat dago irekita. Web gunea elikatzeko lan-talde oso bat dago, eta bestelako fitxak, doinutegiak, unitate didaktikoak... ere erabiltzen ditugu.

### **Bertsoikasgela.eus erabiltzen al duzu? Zer eskaintzen dizu horrek?**

Bai. Aukera handia eskaintzen du, euskarri bat delako, irekia, ikasleek nahi beste saltseatu dezaketena eta beste euskarri batzuk baino moldagarriagoa.

### **Zure bertsolaritza klase baten hezurdura nolakoa den azalduko zenidake?**

Hasieran pizgarri bat eramaten saiatzen naiz. Izan daiteke jolas bat, asmakizun bat, kantu, ipuina... Eta lotuta egoten da klaseak berak izango duen zehar-lerroarekin. Ondoren klasean eta bertsolaritzan barneratzen hasteko doinu berri bat ikasten dugu izpide izango den gaiaren bueltan. Bertsolaritzak aukera handia ematen du gaitasun musikalak hobetzeko. Bertso-sorta hori edukitik aztertu dezakegu eta gaiaz hitz egiteko aukera eman lezake, edo besterik gabe, doinua bera elkarren artean eta errepikapenez ikastera mugatu gaitzke. Hirugarren puntu gisa, bat-batekotasuna lantzen dugu. Bertso-ikasgelaren bidez edo fitxekin, errimak emanda, puntua emanda, ofizioka... Bukatzeko, garrantzitsua iruditzen zait klasea ixtea eta denok batera egin dezakegun zerbaitekin bukatzea.

### **Ikasleek zein kompetentzia lantzen dituztela uste duzu?**

Bertsolaritzaren Curriculumak eginda dago. Curriculumak bertsolaritzaren ezaugarriak azaltzeko modu berria ekarri zuen, bertsolaritza **lau arlo**ekin lotuz. Beste hainbat helburu eta edukiren gainean ere ari da, baina ez ditugu hona denak ekarriko. Laburbilduz, orain arte aipatutakoak lau arlo horietan sailkatuko ditugu:

- **Musika:** doinuari, neurriari eta kantatzeari dagozkionak
- **Hizkuntza:** errimaz esan ditgunak; eta baita neurriaren ingurukoak ere.

- **Trebetasun pertsonal eta sozialak:** esperientziaz aritu garenean esandakoak.
- **Kultura:** adierazpide hau biziz ezagutzea, ondarean txertatzea.

Hala ere, aurrerago agertuko den gisan, funtzio bateratzaileaz ari da Curriculum, alegia, bertsolariak batera gauzatzen dituela dio lau arlotan banatuak, eta ikasi ere halaxe egin behar dela, modu bateratzailean.

- a. Zein onura eskaintzen du bertsolaritzak ikasleengan?

Handia eta desberdina. Uste dut garrantzitsua dela ikasle bakoitzaren eta talde bakoitzaren testuingurua, eta akaso, beste irakasgai batzuk baino aukera handiago ematen du bertsolaritzak horretan.

- b. Komunikazio gaitasunari dagokionez zein ekarpen eskaintzen diete?

Handia. Geroz eta gehiago kostatzen zaigu hitza erabiltzea, gauzen inguruan pentsatzea, eta horiek gure gorputzetik pasatzea. Harrigarria da ikasleek klase batean zenbat aldiz esaten duten “ez dakit”, baina ez “bertsotan” ez dakitela esateko, edozein galderaren aurrean baizik: zer izan nahi duzu *handitan* galderatik, arroza edo entsalada galderaraino.

- c. Euskal kulturarekiko zein ekarpen?

Euskal kulturarekin erabat lotuta dago bertsolaritza, baina nahi baldin bada, “disimuluan” pasa dezake ezaugarri hori. Uste dut, transmisiorako balore handiak dituela etengabe berritzen delako derrigor, ez duelako “memoria” ariketa bat eskatzen eta diziplinartekotasuna baduelako, besteak beste.

- d. Hizkuntzarako atxikimenduarekiko zein ekarpen?

Euskararen beherakadaren izu gara aspalditik. Bertsolaritza euskaraz egiten da, ez dago beste aukerarik, eta ikasleek ez dute hizkuntza batetik bestera pasatzen ibili beharrik. Testuinguruaren arabera, bertsolaritza ikasgela batzuetan gehiago lotzen dugun hizkuntzarekin eta beste batzuetan kulturarekin. Baina biak beti daude era berean.



**“Gu ere bertsotan” programa edo “Bertsolaritzaren Curriculuma” ezagutuko duzulakoan, ba al du arreta jarri beharreko punturik? Eta hanka-motzik?**

8. puntuak aipatu dit. Ni orain gutxi sartu naiz talde honetan (eta urtarrilean bukatu dut etapa hau) beraz ez naiz egokia prozesuaz hitz egiteko. Hanka-motzak? Noski. Bote-prontoan bi: ez dut generoaren aipamenik ikusi eta beste curriculumekin ez dakit zenbateraino dagoen bateratuta.

**Unitate didaktikorik egiten al duzu?**

Bai. Bai indibiduala bai kolektiboa.

**Gaur egun bertsolaritza ematen den modutik zerbait aldatuko al zenuke?**

Ez da erraza helburuak eta klaseak nahi gisan eramatea. Ikastetxeetara bi astean joaten gara normalean eta jarraipen kontudentea egiten ez da erraza.

**Covid-19 pandemiarekin zerbait aldatu al da bertsolaritza eskoletan emateko modua?**

Bai. Taldekako ariketak, materialaren trukea, esperimetzioak, jolasak... askoz ere kontu handiagoz egin behar ditugu orain. Maskarilak ere, bertsotarako, nire ustez, ez dute batere laguntzen.

c. Unai Muñoari elkarrizketa

**Zer da zuretzako bertsolaritza?**

Maila pertsonalean, niretzako bertsolaritza ume umetatik eskape bide bat izan da, sorkuntzarekin, gure espresioarekin eta adierazpenarekin lotura estua duelako eta niretzako kanal bat izan da. Beste batzuk pinturatik edo musikatik edo poesiatik edo literaturatik egiten duten bezala, nik kanala bertsolaritzan aurkitu nuen.

Bertsolaritza, egia esan, betidanik nere bizitzaren parte izan da, ze 4-5 urterekin jada hasia nintzen bertsolaritzarekin lotzen, aitari jarraitzen niolako (berak ere bertsotan egiten baitzuen). Geroztik beti mugitu izan naiz bertso inguruan. Lana ere hor aurkitu nuen.

**Noiz hasi zinen zu bertso klaseak ematen eskoletan? eta zein da zure lana?  
Lehendik zerbait aldatu al da?**

Bai, aldatu da. Hasteko, ni oso gazte hasi nintzen, 21 urterekin hasi nintzen. Beste lan mundu batzuetatik nentorren gainera (harakin izan nintzen, sukaldari, tabernari,...), eta oso gazte, 21 urterekin aukera hau suertatu zitzaidan eta orduan hasi nintzen jada bertsolaritzako dinamikarekin.

Aldakuntzari dagokionez, asko aldatu da, baina ez bertsolaritza edo bertsolaritza emateko modua bakarrik, baizik eta eskola ere aldatu da, umeak ere aldatu dira. Lehen, agian, Haur Hezkuntzatik ikasita hainbat doinu klasiko jakinda etortzen ziren ikasleak (Pello Joxepe, Maritxu nora zoaz, Astoa ikusi nuen). Bazeuden doinu batzuk lehen mundu guztiak ezagutzen zituenak Haur Hezkuntzan lantzen zirelako eta gaur egun konturatzen naiz gero eta eskasagoa dela jakituria hori. Seguraski, bertan, belaunaldi aldaketak gertatzen ari dira eta metodologiak eta gaiak eta kantak eta gauza guzti horiek aldatu egiten dira.

Gure aldetik ere, aldaketak egiten ari garela konturatzen naiz, hasieratik oso lan autonomoa izan da. Gu hasi ginen proiektu hau sortzen, materiala bagenuen, baina irizpide gabe. Beraz, bakoitzak bere estilotik, bere indarguneetatik garatu du proiektu hau.

Zu gainera, garai onean zatoz, azken hiru lau urte hauetan aldaketa oso potenteekin gabilta eta. Orain arte, bertsolaritza idatzita landu izan dugu, liburuarekin, taldeka... Orain ordea, bapatekora egin dugu jauzi. Papera eta boligrafoa albo batera utzi ditugu eta bapatekora igaro gara, eta honek handicap berriak ekari ditu: batetik erakusteko formak aldatu egin direlako, klase dinamika aldatu egiten delako, ez baita berdina lagunekin mahai txoko batean bertsoak kantatzen ibiltzea edo gela aurrean bapateak bertsoa botatzera ateratzea. Bigarren honek ondorioz beste lanketa mota bat eskatzen du.

**Zer lortu nahi duzu bertsolaritzarekin ikasleengan?**

Elkartearen ikuspegitik batetik euskararen erabilera dagoela hor jokoan, bestetik bertsolaritza beraren transmisioa eta euskal kulturaren ezagutza. Horiek dira hiru oinarriak. Eta, gero, bertsozale elkarteak ere hortaz hitz egiten du eta barne sartzen ditu ere trebetasun sozialak, emozioak eta abar.

Nik, gaur egun, nire lanaren parte handi bat, aurretik esandakoaz gain, bertsolaritzaren lanketa eta tradizioa eta kultura eta hizkuntza, garapen pertsonalerako ere aukera on bat dela ikusten dut. Adibidez, emozioen kudeaketarako. Hau, terreno oso zaila da lanketarako, eta eskoletan oraindik hutsune asko ikusten dira gai honetan. Bertsolaritzak, gainera, bat-batean egiteak tripak asko mugitzen dituenez, lotsak, urduritasunak, epaiaren beldurrak... hor sortzen dira galdera existenzial batzuk eta hoiak tratatzen saiatzen naiz. Orduan, proiektuaren izenean esan dizudana esango nizuke, baina maila pertsonalean, bigarren honek maila asko du eta ikasleei bertsolaritzaz gain beste funtzio bat ematea ere nahi dut.

Nik uste, lehenago ematen genuen garaitik gaur arte asko aldatu direla gauzak. Nik uste orain produktiboagoak garela.

### **Zein metodologia erabiltzen duzu?**

Nire kasuan, azken bi hiru urte hauetan, metodologia aldaketa honetan, asko ari naiz erreplikatzeko bertso saioak gelan. Bat-batean egitera ateratzen dira, nik jartzen dizkiet bi errima, minutu bateko tarte bat eta pentsatzen dute minutu horretan eta abesten dute ateratzen zaiena ateratzen zaiela. Metodologia horretan ari gara lanketa polit bat egiten txarrak izaten ikasteko. Pertsonen zailtasunik handiena jendearen aurrean abesteara da, besteara aurrean gaizki egiteak, baztertuak izatea... eta justu, harreman sozialak garrantzia handia daukaten edadean bizi dira, lagunekin orain hasi dira eta haiek oso garrantzitsuak dira puntu horiek. Orduan, txarrak izaten ikaste horrek ere logika badauka. Beraz, nire saioak batez ere, bapateko ariketetan oinarritzen dira. Nik, "level" moduko batzuk jartzen dizkiet eta bakoitza bera doa bere nibela aukeratzen, nolabait bideojoko bat balitz pantaila ezberdinak daude, adibidez, batean binaka kantatu dezakezu, beste batean banaka baina araurik gabe, bestean banaka bi errimekin, bestean neurria zaintzen... eta horrela bakoitzak erabakitzen du bere burua non kokatu eta bere progresioa berak erabakitzen du, binakatik banaka egitera noiz pasa eta honelako metodoak.

Gero, ereduak ikusi, bertsoak ikusi, eta hoietaz baliatu hainbat gai lantzeko.

### **Ikas materialik erabiltzen al duzu?**

Liburua egon badago, gero guk aukeratzen dugu liburua erabili ala ez. Eskola ia gehienetan liburua kendu egin dugu, *bertsoikasgela.eus* badugulako, eta hor izugarritzko material piloa dago. Orduan, hori, ereduak ikusteko, bertso sortak abesteko erabiltzen dut normalean. Baina, gero, bapateko lana material gabe egiten dugu, azkenean bapatekoa baita. Adibidez, bi errimak jartzeko lan horretan gure materialean badago ariketa pilo bat, baina, nik nahiago dut beraiek saiazea jartzen bi errimak. Orduan, kantatzen ateratzen direnei publikoan dagoen batek bi errimak eman eta horrekin egiten dute. Azken batean, nik kurtsoa oso planifikatua daukat, baina, aldi berean, oso inprobisatua da.

**Bertsoikasgela.eus erabiltzen al duzun galderari erantzun didazu.**

**Zure bertsolaritza klase baten hezurdura nolakoa den azalduko zenidake?**

Lehendabizikoz, eredu bat ikustea, bertso sorta bat abestea, bertso saio bat ikusi, gairen batetaz hitz egin (adibidez martxoak 8 bezalako eguna baldin bada). Hasiera, nolabait esatearren xuabea da. Bestea, ni oso zentratua nago erabiltzen dudan jolas horretan: *txarra naiz eta zer deitze diodan horretan*. Eta, gero mailakatzeak. Zerrendatik denak ateratzen joaten dira, denak ateratzen dira, ez da autazkoa. Aldiro, jolas hori egiten dugu. Aldatzen den gauza bakarra da, beraiek pantaila aldatzen dutenean: batek 4 saio daramatza binaka kantatzen eta ikusi du bere burua gai dela banaka kantatzeko. Azken batean bakoitzak bere maila edo "level" aldaketa egiten du ikuste duenaren arabera. Hori ere azken batean polita da, zeren eta beraiek ikusten dute beraien erritmoan doazela, eta ez diezula zuk behartzen zerbait egitea. gero, horretaz aparte, hezurduraren gauza garrantzitsuetako bat umorea erabiltzea da.

**Ikasleek zein konpetentzia lantzen dituela uste duzu? Ze onura eskeintzen dizkio bertsolaritzak ikaslearengan? Komunikazio gaitasunaren inguruan? Euskal kulturarekiko ze ekarpen? Eta hizkuntzarako atxikimenduarekiko?**

Hizkutzatik hasiko naiz, basikoena hori delako. Jolasa, diertsioa eta euskara zaku berdinean sartzen dira. Nik uste, konexio hori garrantzitsua dela, izan ere, ohituta daude euskara ikaste hori oso akademikoa izaten, eskola batzuetan euskara ez dute berea bezala sentitzen, orduan, honek uste dut lortzen duela euskararekiko atxikimendu ludikoa, eta euskararekin ondo pasatzeko aukera. Hizkuntzari

dagokionez ere, bapatean egite horrek eta neurri batzuen barruan, errimarekin, edota idea baten bueltan egoteak hiztegia, esateko modua eta guzti hori kontuan hartzen du.

Bestalde, ekarpen kulturala. Eskoletara joaten zarenean eta galdetuz gero nor den Fermin Muguruza askok ez dakite nor den, edota gure historian pasa diren gertakizunen inguruan hitz egin eta ez dute historia horri buruz asko jakiten, adibidez Joseba Sarrionandia. Horrek ere, nire ustez, garrantzia handia du eta espazio hauek aprobetxatzea gure kulturaz hitz egiteko eta izen horiek ezagutzera eramateko.

Lanketa emozionalaz hitz egingo nuke, baita trebetasun pertsonalen inguruan ere. Zuk, teoriaz, zure buruarekin konektatu behar duzu bertsotan egiteko, gero hori mundura kanporatu behar duzu. Batzuk, harrokeritik filtro gabe dena askatzen dute. Azken batean, gure saioetan oso garrantzitsua da bakoitzak bere sentimenduak kudeatzea eta askatzea eta azkenean bakoitzak bere lanketa emozionala eginez eta trebetasun pertsonal horiek kudeatuz lanketa polita egin daiteke.

**“Gu ere bertsotan” programa edo bertsolaritzaren curriculumaz ezagutuko duzulakoan, ba al du arreta jarri beharreko punturik? eta hanka motzik?**

Curriculumean idatzita dagoena perfektua da, baina hori gero praktikara eramatea beste kontu bat da. Orduan, hanka motzak ez dakit zer erantzun horri. Baina, nik, gure lanean, lan gehien ematen didan zatia ebaluaketa da, azken batean, jakitea zein ekarpen egin dudan, eta ikasleak bi urte eta gero zer eramango duen, eta azkenean hori ebaluatzea. Horregatik, nik uste, bertan dugula gure koxkarik handiena eta orain horregatik ari gara hori dena formalizatzen (HUEZlrekin, Unibertsitatearekin etab.), bapatean ikasteko metodo baten bila eta hori ebaluatzeko metodo baten bila.

Nik, ebaluazio lineala egiten dut, hau da, ikasleak urte osoan zehar duen bilakaera hori irakasleari helarazten diot. Hala ere, ikaslearen notaren zamarik handiena jarrerak eramaten du, izan ere, bertsotan egiteko gogo jarri behar da eta gogorik ez duenak ez du gauza haundirik egingo. Honekin batera, ikasleek beraiek ere askotan badakite zein nota eramango duten bertsolaritzako saioetatik, zeren gogo jarri badute eta bertsolaritzari errespetuz jokatu badiote, eta gero gainera egiten dugun nibelen jolas horretan aurrerapasua egin badu, badaki nota ona eramango duela.

Aldiz, utzikeria jarrera izan badu, nahiz eta jolasean aurrerapausu handia egin, ez du nota oso onik eramango. Hala ere, bertsolaritzako nota sinbolikoa dela esango nuke, amaierako boletinean zama handiegirik ez baitu izaten gure notak.

### **Unitate didaktikorik egiten duzu?**

Formalak ez. Barrurako bai. Nik adibidez, urteko plangintza guztia Mikel Artolari bidali diot. Baina, ez dut sekuentzia didaktikorik eta honelakorik egiten. Azken batean nik nire urtea planifikatu nire logiken baitan eta nire helburuen baitan, nire estrategiak, nire klaseak nondik nora joango diren... Baina, hori oinarri sendo bat edukitzeko egiten dut, hala ere, niri klasera joan eta berdin zait hori dena deskoadratzea edo uztea gela bati garatzen beste inguru batetik hala suertatu delako.

### **Covid-aren pandemiarekin zerbait aldatu al da bertsolaritza eskoletan emateko modua?**

Nik molestoa den puntu bat jarriko nuke eta hori maskarila da. Honek, azken finean komunikazioa eten egiten du, eta 25 pertsona dituzu aurrean eta begiak bakarrik ikusten dizkiezu, eta ez dizkiezu muekak ikusten, aurpegikerak ere ez... Hor, azkenean, distantzia handia sortzen da, eta ikasleengana heltzea ere kosta egiten da.

## **d. Peru Abarrategiri elkarrizketa**

### **Zer da zuretzako bertsolaritza?**

Nire ustez bertsolaritza beti izan da komunikatzeko modu bat, beti izan da asko gustatu zaidan ekosistema bat. Azken batean, bertsolaritzaren inguruan dagoen guztiak asko eman dit, bertsotan hasi nintzen garai horretatik ere esango nuke nire kantatzeko modua ere asko aldatu dudala eta orain bertsoa botatzeko estilo propio bat dudala. Nik uste, bertsolaritzak lagun asko ere ematen dizkizula, izan ere zuri gustatzen zaizun giro antzekoko jendearekin elkartzen zara, euskal kulturarekiko harremanak ere sendoak dira. Azken batean, bertsolaritza komunikatzeko beste modu bat dela esango nuke, baita jolasteko ere.

**Zein da zure lana ikastetxeetan? Eta noiz hasi zinen bertsolaritza ematen? Zerbait aldatu al da lehendik?**

Karrera amaitu nuen duela bi urte eta zuzenean hasi nintzen bertsolaritzako irakasle moduan lanean Hezkuntza Arautuan. Nire lana, ikastetxeetan, bakoitzak bere asignatura ematen duen moduan, nire lana bertsolaritzako saioak prestatu eta honakoa ematea da, bertsolaritza bakarrik ematen baitut nik. Bertsolaritza ematen aspaldian hasi nintzen, baina ez hezkuntza arautuan, baizik eta bertso eskoletan, eta esanda bezala, duela pare bat urte hezkuntza arautura jauzi egin nuen. Zerbait aldatu den galdera hori ez dut erantzungo, izan ere, nik esperientzia gutxi izan dut bertsolaritza emate honen arlo honetan, beraz, ez dakit lehen nola ematen zen eta orain ematen denaren aldeko ezberdintasun handiegirik.

**Zer lortu nahi duzu bertsolaritzarekin ikasleengan?**

Ikusita zein eremutan ematen dudan, bertsolaritza, oso argi dut, klasez klase eta eskolaz eskola helburuak aldatu egin behar direla, eta eskola ezberdinetako jendeari ezin zaiola eskatu berdina. Nik, esate baterako, herrian bertan, ikasleak bertsolaritzara afizionatzen saiatzen naiz, bertsolaritzaren alderdi ludiko hori ikustea, eta euskara mailaren arabera, inprobisazioa lantzen ere saiatzen naiz. Beste eskola batzuk ere baditut, non euskara maila askoz baxuagoa den, Gasteiz hiriko eskola jakin batzuetakoa esate baterako, nahiz eta saiatzen garen inprobisazioa lantzen, hitz potoloogia izan liteke. Azken batean, euskaraz jolasteko modu bat erakusten saiatzen naiz. Toki batzuetan, euskararen erabilera eskolaz kanpo "inexistente" dela esango nuke, eta eskola barruan ere oso mugatua.

**Zein metodologia erabiltzen duzu?**

Bi astetik behin elkartzen gara arabako bertso irakasleok eta bertan sortzen dugu programazio bat. Egia esan, gure helburua aurten inprobisaziora bideratuta dago. Nik, bertsoa idatziz ikasi nuen eta gero probatzen zoazen heinean inprobisaziora jotzen duzu. Silabak nola kontatu ikasten duzu, esan dudan bezala nik idatziz ikasi nuen hori eta guk horrekin apurtu nahi dugu. Hala ere, ikasle batzuekin errazagoa egiten zait idatziz irakastea beste batzuekin baino, baina saiatzen naiz.

**Ikasmaterialik erabiltzen duzu? Zein? *Bertsoikasgela.eus* erabiltzen al duzu? Zer eskaintzen dizu horrek?**

Honako bi galdera hauek batera erantzungo ditut, azken finean lotura zuzena dutelako.

Ikasmateriala bai erabiltzen dugu, liburua badugu, baina hurrengo galderan aipatzen duzun *bertsoikasgela.eus* erabiltzeko ohitura gehiago dut. Bertan, oso ariketa politak daude, bertso sorta politak, eta azkenean hezurdura bat eskaintzen du ikasleak inprobisatu ahal izateko: puntu erdiko ariketak, errima bilatze ariketak... Nire ustez, *bertsoikasgelak* dituen material desberdinak dibertigarriak eta oso erabilgarriak izateaz aparte, bide bat ematen dizu ikasleek ahal dutena jorratu.

### **Zure bertsolaritza klase baten hezurdura nolakoa den azalduko zenidake?**

Normalean, bertsolaritzaren klase baten hasieran saioa nolakoa den kontatzea gustatzen zait, bestela ikasleak denbora asko galtzen dute zer egingo ote dugun galdezka. Normalean, pare bat dinamika izaten dira, saiatzen naiz dinamiketan jolasen bat sartzen, esate baterako, “hundir la flota” moduko jolasen bat, “pictionari” bertsotan... hori bai, dena bertsoarekin lotuta. Saiatzen naiz, alderdi ludiko hori erabiltzen.

Klasearen bigarren erdian ariketak egiten ditugu bertsoikasgelan daudenak. Klasearen lehenengo zatia nahiko inprobisatua denean, bigarren zatian idatzizkoari garrantzia ematen diot eta honek ez dit arduratzen.

### **Ikasleek zein kompetentzia lantzen dituztela uste duzu?**

- a. **Zein onura eskaintzen du bertsolaritzak ikasleengan?**
- b. **Komunikazio gaitasunari dagokionez zein ekarpen eskaintzen diete?**
- c. **Euskal kulturarekiko zein ekarpen?**
- d. **Hizkuntzarako atxikimenduarekiko zein ekarpen?**

Nire ustez, lantzen diren kompetentziak jendeaurrekotasuna, ahozkotasuna, hiztegia eta abar dira. Baina, bereziki jendeaurrekotasuna. Lotsa apurtzeko ere oso polita da bertsolaritza, abestera behartzen baitzaitu. Guk, askotan, taldeka egiten ditugu dinamikak eta horrek taldean lan egitera bultzatzen ditu. Era berean, bertsolaritza euskara modu ludiko batean erabiltzeko tresna egokia da. Gasteizko kontestuan,



euskararen erabilera beti eskolarekin lotzen da, beraz, bertsolaritza gauza ederra da euskararen erabilera zabaltzeko.

Komunikazio gaitasunari dagokionez, jende aurrean abestera, jende aurrean espresatzera, jende aurrean egoten jakitera laguntzen du.

Euskal kulturari egiten dion ekarpena, euskara modu ludiko batean erabiltzeko aukera ematea gauza handia da testuinguru honetan. Gero ere, kantuak, doinuak, erreferente ezberdinak ezagutzea, hori dena ere badakar bertsolaritzak.

Hizkuntzarekiko atxikimendua “palabras mayores” dela iruditzen zait. Gasteizen eskola asko ditut nik, oso ezberdinak, batzuk askoz euskaldunagoak beste batzuek baino. Gasteiztik kanpoko herri txikietako eskoletan ere egoten naiz eta haietan gauzak oso ezberdinak dira. Batzuk, herri oso euskaldunak dira eta beste batzuetan, aldiz, gehiago kostatzen da. Orduan, 15 egunetik behin joaten naizenez, atxikimendua lortzea zaila dela esango nuke, baina euskararen beste erabilera bat ezagutzearekin pozik nago.

**“Gu ere bertsotan” programa edo “Bertsolaritzaren Curriculuma” ezagutuko duzulakoan, ba al du arreta jarri beharreko punturik? Eta hanka-motzik?**

“Gu ere bertsotan” asko erabiltzen dugun soporte bat da. Nire kasuan, *bertsoikasgelak*, hau da, gure plataforma digitalak klasea askoz biziagoa izatea eragiten du. Gainera, liburuetara asko jotzen badugu, gero zailagoa da ikasleei ez idazteko eskatzea. Azkenean, liburua gauza batzuetarako erabiltzen dugu eta ez dago gaizki, baina plataforma digitalak laguntzen dit ikasleak inprobisaziora bideratzen.

**Unitate didaktikorik egiten al duzu?**

Ez. Esan dudan moduan, bi hilabeteko programazioak egiten ditugu eta horiek aurrera eramaten saiatzen gara. Egia da eskoletan asko gustatzen zaiela data konkretuetan bertsoak sortzea, esate baterako, santa agedan, emakumearen indarkeriaren aurkako egunean, olentzerotako jaialdian... Ondorioz, honek gure programazioa trastokatzen du.

**Gaur egun bertsolaritza ematen den modutik zerbait aldatuko al zenuke?**

Egia esan, nik ez dut esperientzia handiegirik. Egia da, bertso eskoletan ditudan ikasleekin eta eskola arautuan ditudan ikasleekin egiten ditudan ariketak ez direla berdinak. Bertso eskolan, inprobisazioa gehiago lantzen da. Eskola arautuan, aldiz, andamiaje bat ematen saiatzen naiz, hoiak deskubritu dezaten zer den bertsolaritza. Azken batean, beraiek proba dezaten beren burua zein puntutan dagoen. Nire ustez, bertsolaritza inprobisaziotik hurbilago dago nahiz eta idatziak garrantzia izan eta hori saiatzen naiz irakasten.

### **Covid-19 pandemiarekin zerbait aldatu al da bertsolaritza eskoletan emateko modua?**

Bai. Nire kasuan ohituta nago dinamika asko talde txikietan egitera eta Covid-19aren ondorioz, talde txikitako ariketak alde batera utzi behar izan ditut. Niretzako horrek arazo bat ekar dezake, batez ere inprobisazioa eskatzen duten ariketetan. Izan ere, gaitasuna duten ikasleek aurrera egiten dute, baina beste asko atzean gelditzen dira. Horrek ematen dit beldur gehien.

## **III. Eranskina: Genero ikuspegia elkarrizketak**

### **a. Amaia Agirrerri genero ikuspegiaren elkarrizketa**

#### **Bertsolaritzaren bitartez nola lagundu daiteke genero berdintasunean edo hezkidetzan?**

Nik, nire esperientziak hala eskatuta eta premiak hala bideratuta, azken urte luze hauetan beti nabil betaurrekoak jantzita, bai bertsolaritzan eta baita hortik kanpora ere. Berdintasunean nola lagundu daitekeen hezkidetzan? Nik uste dut, betaurreko moreak jantzita eta begirada anitza eta irekia izateak asko laguntzen duela. Bertsolaritzaren bidez nik ikasleei beti esaten diet gabonen aurretik klase feminista bat emango diedala, eta ez da beti azaroaren 25aren inguruan, gero martxoaren 8an beste bat eta kurtsoa bukatzerakoan motibazio saioak egiten ditugu gelaz gela. Azken honetan, ni eta beste bertsolari bat aritzen gara bat-batean ikasleentzat kantuan eta hor beraiek egiten dute gai-jartze lana eta askotan gai zentrala futbola izaten da eta animatzen diren lehenengo eskuak beti dira mutilenak edo ia beti esango nuke. Hor, beti saiatzen naiz oreka topatzen modu implizituan mezuak

helarazten ikasle hauen belarrietara eta egia da azken aldian arrituta eta larrituta nagoela genero-ikuspegian ustez lanketa egiten ari garen garai hauetan, aurrera pausuak ikusten ditut, baina atzera pausuak ere bai.

### **Nola lantzen duzu zuk hezkidetza bertsolaritza klaseetan?**

Nik, genero berdintasuna eta gisa hortako hezkidetza klaseak ez ditut zuzenean dekalogo baten bidez edo bertso sorta zehatzen bidez lantzen aldiro, baina bai aipatu dizudan bezela, ikasturtean hiru aldi erabiltzen ditut edo baliatzen ditut horretarako. Badaude oso sorta onak umeen jostailuen koloreaz, umeen jostailuen rolaz hitz egiten dutenak, ogibideek duten genero markei buruz, beraiei hitza ematen diet zer eta nola ikusten duten, publizitatean nola sartzen dizkigun zenbait balore bortitz eta erroneo begietatik, eurek entzuten duten musika (“peleas de gallo” bezalakoak ekartzen ditut, edo rapa ekartzen dut ahotara)... eta horri buruz aritzen gara lantzen, oso gai interesgarria baita hori. Beraiek, 9-10-11 urteko neska mutilek oharkabean zenbat balore matxista barneratzen dituzten izugarria da, eta nik hori nahi diet erakutsi.

### **Zure ustez bertsolaritzan berdintasunik badago?**

Bertsolaritza, gizartean bezala noski ez dagoela berdintasuna. Egia da arrakala batzuk zabaldu direla eta lehen hegemonikoa zena eta erdigunea zena, orain pixka bat batzuei zorua, hain seguru zegoen eta hain seguru zapaltzen zuten lur hori mugitu egin zaiela eta agintea eta erdigunea eta lurra mugitzeak bertigoa ematen duela, ezinegona sortzen du, deskoloke bat esango nuke, eta hori da gaur egun bertsolaritzan gertatzen dena besteak beste. Egia da bertso saioetan kupoa betetzearen apostua egiten dutela eta oraindik ez dela orekatua esaten den bezala. Nahiz eta orekatua izan kopuruari dagokionez, alegia, lau neska eta lau mutil izan arren eskaparatean, hori ez dela berdintasuna eta ez dela final parekidea, hori baita askotan esaten dena ezta? Kristalezko sabaiaz hitz egiten da, ikusten ez den sabai horri buruz.

**Punturen bat aipatu gabe utzi dela uste duzu genero-berdintasunari dagokionez curriculumean? Edo, zein aipamen egin beharko lioke curriculumak?**

Askotan aipatzen da Arantzazu Loidi bezalako bertsolari batek, Jon Sarasuaren eta remesa bereko bertsolariak ez zuela aurrera egin zeukan ahots mehe eta fin horregatik. Entzulea ez zegoela ohituta ahots horretara eta belarriak ez zeudela prest horrelako ahotsak barneratzeko. Lazkao Txikik ez zuen askoz ahots indartsuagoa eta tinbrea ere askoz finagoa zeukan, baina funtzionatzen zuen. Askotan egotzi izan zaigu emakumeoi umorean ez ote gauden aski trebatuak eta gaur egungo gazteari hori leporatzen zaio, zer da umorea? umorea nori zaio zilegi? orain arte nolako umorea egin da, beti umore goitik beherakoa, bertikala. Orduan, umorea ere sortu egin behar da, emakumeon umorea esaten dugun hori. Orain arte, gai unibertsalak zirenak beti ziren gizonen intereseko gaiak, eta besteak emakumeengaiak, baina erabat unibertsalak ziren gaiak ere bai, noski. Alde batekoak gai unibertsalak baldin badira eta denentzat balio baldin badute besteak zergatik ez dute balio? eta zergatik dira gai emeak? Orduan, zer egiteko? asko, eta honetaz luze hitz egin daiteke. Mugimendua badator, bereziki neska bertsolari gazteak indarrean datoz. Ez da kasualitatea 18 urte arte txapeldunik gehienak emakumeak izatea eta gero 18tik aurrera sekulako amildegia zabaltzea. Eta askok eta askok ez dute jarraitzen, ez delako erraza oihan horretan Lujanbiok “selba” horretan bizirautea ez delako erraza. Ez da soilik lotsa eta ez da solik beste bide bat hartzen duela neska gazteak, azpian gauza asko daude. Eta ez da kasualitatea urteetan eta urteetan gauza bera pasa izana, eta gaur egun ere ikastetxeetan ikusten duguna zer den. Zeintzuk daude erdigunean? Zeintzuk okupatzen dute jolas ordua? Asteburutan zeintzuk ari dira jende aurrean? Zeni ematen zaie lizentzia hori? Hortxe erantzuna.

## f. Maialen Akizuri genero ikuspegiaren elkarrizketa

### **Bertsolaritzaren bitartez nola lagundu daiteke genero berdintasunean edo hezkidetzan?**

Nik uste, bertsolaritzak azkenean ibilbide luzea duela, eta azkenengo urteetan generoa nahiko hitz egin den arloa dela. Batez ere, iruditegi berriak sortzen, emakume bertsolari asko daude orain oholtza gainean, eta hauek ekartzen duten gaia, trataera eta tonalitatea asko aldatu da, eta nik uste erreferente berriak sortzen dituela bertsolaritzan. Parekidetasuna ere geroz eta gehiago ikusten da, ez bakarrik

estereotipoetan edo iruditegian. Azkenean, elkarte guztia jarri da hezkidetzaz lantzeko hautuakin oso gogor eta hezkuntzan ere asko notatzen da hori.

Hezkuntzako kasuan adibidez, ni ibili naizenean, bertsolari zaharrak orain arte beti izan dira gizonezkoak, kasu Xalbador, Txirrita, Lazkao txiki... lan asko ari da horren inguruan ere egiten ze garai lehen ere emakumeek bertsotan egiten zuten, baina sukalde giroan edo etxe barruetan gelditzen ziren bertso horiek. Horiek ateratzeko lan bat egin da. Gero, bertso klaseetan lantzen ditugun bertso sortetan eta genero iruditegiak oso landuta daude, adibidez, baloia izan dezala denena, arrosa kolorea ere eta handik haratago baita. Azken batean, bertso sorta bakoitzak bere moraleja du edo ikasteko zerbait, ez bakarrik genero ikuspegitik, naturarekiko harremana, sare sozialekin eduki beharreko kontua, familia aniztasuna edo honelako puntu hezigarriak.

### **Zure ustez bertsolaritzan berdintasunik badago?**

Dudarik gabe askoz emakume gehiagok kantatzen dutela, baina dudarik gabe, datu kuantitatibo horiek bakarrik jarrita gizonak gehiago dira. Berdintasunari begiratu gero ere, txapelketetak zeintzuk hartzen duten parte, bertso-eskoletan gurasotasunaren ondoren gizonak gehienbat ikusten dira eta emakumei gehiago kostatzen zaie. Eraso sexistaren aurka ere bertso elkarteak protokolo bat jarri du martxan baita ere, ikusi delako ez bakarrik teorikoki, baizik eta beste nolabaiteko esku-hartzeak ere behar direla.

### **Zertan datza protokolo horrek?**

Azken batean, genero ikuspegia oso zehatz sartu da bertsozale elkartean eta ikusten zen elkartea bera ere ez zela gizartetik kanpo zegoen leku bat, eta bertan ere genero-harremanak eta indarkeria-harremanak ere egon daitezkeela. Adibidez, parranda batean gertatu daitekeen bezala, bertsoan ere gertatu daiteke. Gainera, bertsoa parranda girotik oso urrun ere ez da gelditzen. Azken batean, horri nola aurre egin, indarkeria hori nola detektatu ez bakarrik fisikoa.

**Punturen bat aipatu gabe utzi dela uste duzu genero-berdintasunari dagokionez curriculumean? Edo, zein aipamen egin beharko lioke curriculumak?**

Iruditzen zait, bertsolaritzako curriculumaz azken batean klasean gertatzen den horretara bideratuta bakarrik dagoela. Ez dakit nola beharko lukeen, baina eskolan eragina izan beharko lukeela klasean gertatzen den horretan zentratzean baino.